

63

500 pezeta / 20 libera • 2001eko ABENDUA euskal heziketarako aldizkaria

hh

hik hasi

GAIA: GAZTEEN IRAKURZALETA-
SUNA • ESPERIENTZIA: MENDI
ARTISTA • TEORIA: ELLIOT
TURIEL • GAZTE KOMIKIAK •
M^a DOLORES GOIA ANDEREÑO



ELKARRIZKETA

Anjeles Iztueta

Eusko Jaurlearitzako Hezkuntza sailburua



gaia

GAZTEEN IRAKURZALETASUNA

Gazteek gutxi irakurtzen omen dute euskaraz. Hori sustatzeko beharraz jabetuta, Galtzagorri elkarteak Liburu Gaztea literatur lehiaketa antolatzen du. Antolatzaileen, kritikoen eta parte-hartzaileen iritzia jasotzen ditugu.



elkarrizketa

ANJELES IZTUETA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuarekin solasean

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

GAZTEEN IRAKURZALETASUNA

Nola sustatu?

Galtzagorri elkarte, Iñaki Zubeldia

18 elkarrizketa

ANJELES IZTUETA

26 teoriak

Elliot Turiel

Santiago Palacios

30 ekarpena

Artista baten eskutik

32 ekarpena

Gazteentzako euskarazko komikiak

34 ekarpena

Axa mixa zilarra agenda-egutegia

35 berriak

36 argitalpenak

40 eskolako zertzeladak historian

M^a Dolores Goia Mendiola andereñoa

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 37.14.08

Fax: 943/ 37.21.54. Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Koordinatzailea: Joxe Mari Auzmendi Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz Erredakzio batzordea: Mikel Estarza, Arantxa Goiburua, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Inanol Agirre, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbao, Felix Basurko, Xabier Isasi, Irene Lopez-Go i, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Ota o eta Pruden Sodupe. Diseinua: TRAMGraf!k Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Anjeles Iztueta (Ikor Kotx).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2001 /XI/23 . Kopurua: 4.000 ale

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

hik hasik

euskal hezitzaileen harpidetza behar du



30 euro urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

Zure parte-hartzea
ezinbestekoa zaigu

harpide zaitetz!

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale
eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoaz

Izena.....1. Deitura.....

2. DeituraTel.:.....

HelbideaPosta Kodea.....

Herria.....Herrialdea.....

Ikastetxea.....Herria.....

IFZ-NAN

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**HARPIDETZA
SARIAK**
(BEZ barne)

30 euro

Hego Euskal Herria
5.000 pezeta
Ipar Euskal Herria
200 libera

hik hasi

Euskal
heziketarako
aldizkaria

Errekalde hiribidea, 59
Aguila eraikina 1. solairua
20.018 DONOSTIA.

GIPUZKOA

Tel: 943/ 37 14 08

Faxa: 943/ 37 21 54

editoriala abendua

Zorionak Erein, 25 urteotako ekarpenagatik



Ikasmaterial onak
eta kalitatezkoak
beharrezkoak badira
ere, ez dute
irakaslearen lekua
hartu behar

Ereinen 25. urteurrena dela-eta, argitaletxeazoriondu nahi dugurte haue-tan egin duen ekarpen oparoagatik. Alabaina, abagune hori aprobetxatu dugu ikasmaterialen inguruko gogoeta egiteko.

Egurrezko ikasmahai zaharraren gainean ohikoa zen *Katoia* ahaztu samarra daukagu, garai bateko kontuak dira horiek. Baina ezin dugu ukatu hura zela orduko testu liburu nagusia. Ikasli-buru gutxi zeuden, eta euskarazko bat bera ere ez. Euskarazko irakaskuntza-ren hastapenetan hasi ziren irakasleek testu libururik gabe moldatu beharra izan zuten. Andereñoak eta maisuak beraiek handik eta hemendik biltzen zuten materiala, eta harekin moldatzen ziren. Haurren beharrei erreparatu eta horren arabera egokitzen zituzten apunteak, entziklopedietako informazioa, itzulpenak, argazki solteak eta abar. Andereño eta maisu sortzaileak ziren: zer behar, hura sortu.

Izugarrizko lana eta esfortzua eska-

tzen zuen horrek, baina arintzeko mo-
dua aurkitu zuten: elkarlana. Taldean
bildu eta zer egin, zertarako, zergatik...
hausnartu eta erabakitzen zuten. Nes-
ka-mutilak bere osotasunean hartu eta
etorkizuneko gizon-emakume izateko
prestatzea zen xedea.

Alabaina, irakasleen lekukoa hartu
zuten argitaletxeak sortu ziren ondo-
ren. Euskal irakaskuntzarako materiala
sortzeari ekin zioten, andereño eta mai-
suek egiten zutena profesionalizatuz
eta kalitatea hobetuz. Ekarpen interes-
garria bezain garrantzitsua egin dute
euskarazko argitaletxeek urte hauetan
guztietan. Gaur egun beste herrialde-
tako materialen parean daude, onenen
artean, alegia. Ikusi besterik ez dagoli-
buruen koloreak, diseinu berritzaileak,
argazki zainduak, material egokiak, fi-
txa erakargarriak, mapa zainduak eta
abar. Are gehiago, gure argitatetxeak
ez daude lo. Orain artekoari jarraipena
ematearekin batera, teknologia berrien
erronkari ere aurre egiteko prestatu di-

ra; euskarri berrietako materiala argita-
ratzen ari dira. Guztia euskaraz eta eus-
kal kulturaren sustraiturik.

Izan ere, gaur egungo mundu globa-
lizatu eta monolitikoaren aurrean, eus-
karazko argitaletxeek ikuspegi anitza,
errespetuzkoa eta kultur aberastasuna
sustuko duena bultzatu behar dute. Hor-
tan datza euskal argitaletxeen erronka.

Haatik, argitaletxeek irakasleen le-
kukoa hartu bazuten ere, ikasmaterialek
ez dute irakasleen lekua hartu behar.
Material horiek tresna edo bitartekoak
dira, baina ez irakasleen ordezkioak.
Ikaskuntza/irakaskuntza prozesuak ez
du ikasmaterialen menpe egon behar,
ez dute irakaslearen lana bideratu behar,
ez dute *katoia* bihurtu behar. Horregatik,
ez ote dugu berreskuratu behar hasiera
hartako talde lana? Ez ote genuke ikasle-
ei entzuten eta beren beharretara egoki-
tzen ahalegindu behar? Ez ote genuke
sormen hura berreskuratu behar ikasle-
ak ere sortzaile izan daitezten?

kronika

Iruñerriko D ereduko zuzendariak informazio ofiziala euskaraz bidaltzeko eskatu diote Iruñeko Udalari eta Nafarroako Gobernuari.

Euskarari ematen dioten tratamendua dela-eta, kezka agertu dute zuzendariak eta plataforma iraunkorra eratu dute egoera horren aurrean jarrera bateratua agertzeko.

Ildo horretatik, Iruñeko alkatearekin eta Hezkuntza kontseilariarekin hitz egiteko bilera eskaera egin dute.

Zuzendariak kexu bat baino gehiago dituzte. Alde batetik, azkenaldian Iruñeko Udaletik jasotzen duten informazio guztia gaztelania hutsean iritsi zaie. Horren aurrean, informazio ofiziala gutxienez elebizi bidaltzeko eskaera egin dute. Beste aldetik,

langileen hizkuntz eskakizunak zehaztu daitezzen ere eskatu dute. Era berean, Hezkuntza Departamentuak 3 urtetik aurrera ingelesa eta gaztelania sartzeko duen asmoa ere salatu dute. D

ereduko ikastetxeetako zuzendariak diotenez, horrek murgiltze sisteman kalteak baino ez litzuzke ekarriko.



Euskararentzako diru laguntzak murriztu nahi ditu UPNk

UPNren Gobernuak euskararentzako diru laguntzak %12 murriztu nahi ditu. Parlamentura bidalitako aurrekontuetan ikusten denaren arabera, Hizkuntz Politikak inoiz izan dituen diru murrizketarik handienak jasan ditu. Iazko aurrekontuekin alderatuta, euskararentzat bideratutako diru laguntzak %12 jaitsi dituzte. Horren barruan, euskararen irakaskuntzaren garapena eta bultzadara bideratutako laguntza %2,5 murriztu dute. Iaz 306,5 milioi pezeta bideratu ziren, eta aurten 298,6 milioi pezeta. Kopuru horietatik 13,3 milioi pezeta bideratu ziren iaz euskal irakasleen hobekuntzara, eta aurten 10 milioi pezeta. Euskararen erabileraren inguruko egitasmorako kopurua 21,5 milioitik 21era jaitsi da. Euskara bultzatzeko egitasmo-etarakoak 27,8 milioitik 22ra. Euskaraz-

ko ikasmaterialei dagokienez, 19 milioi bideratu ziren iaz eta aurten 14 milioi proposatzen da. Euskararen sustapenerako bekak eta laguntzak bi milioi gutxiago jasoko lukete aurten, 28 milioi. Eta gau eskolak 100 milioirekin geldituko lirateke, iaz baino 7,7 milioi gutxiago.

Hezkuntzaren alorrean Lanbide Heziketa sustatzeko egitasmoek diru laguntza gutxiago jasoko dute. Ostera, ikastetxe kontzertatuetarako subentzioek gora egin dute.

Oro har, Nafarroako Gobernuaren aurrekontuak oso-osoarik hartuta, %0,22 erabiltzen da euskararentzat. Kopuru hori etengabe jaitsi da 1995. urteaz geroztik. Aitzitik, azken urteotan %0,34koa zen jaitsiera. Iaz, ordea, Pedro Pegenautek hartu zuen Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiko ardura, eta murrizketak areagotu zituen. Euskararentzako diru laguntzak %0,27ra jaitsi ziren. Are gehiago, beste birmoldaketak ere egin zituen eta ondorioz euskararen garapenerako proiektu gehienak desagertu egin ziren. Esate baterako, administrazioan euskararen presentzia areagotzeko programa guztiak, eta hizkuntza politika sustatzeko dirua.

UPNren aurrekontu txosten honek CDNren babesa jaso du. Oposizioak eta sindikatuek, ordea, kontrako jarrera agertu dute. Bozeramaileen Mahaiak tramiterako onartu ondoren, eztabaidarako epea ireki da.

16 urteko neska-mutil batek euskal kulturari buruz gutxienez ezagutu behar dituen edukiak, izan behar dituen trebetasunak eta zer jarrera espero daitezkeen definitu behar du euskal curriculumak

Xabier Garagorri



Euskal Herriak bere eskola kampana abiatu da herriz herri

Euskal Herriak bere eskola kampana aurkeztu dute hainbat ikasle, irakasle, guraso eta herritarrek, eta leloak dioen bezala, Euskal Hezkuntza sistema propioaren aldeko ekimena da. Orain arte sistema propioaren aldeko urratsak eman baldin badira, hemendik aurrera pauso berriak emateko aukera dagoela adierazi dute kampanaren bultzatzaileek.

Aurrerabide horretan garrantzitsutzat jo dute elkarrekin lan egitea. Elkarlana izango du ardatz, beraz, kampana honek. Asmoa herriz herriko taldeak sortzea da, bakoitzak tokian tokiko beharrak identifika ditzan eta tokian tokiko helburuak finka ditzan. Herrietako talde horietako ordezkariak maila nazionalera erakundeak bilduko lirateke.

Horrela bada, herrietako taldeak sortzeaz gain, beste hainbat ekimen eramango dira aurrera: sinadura bilketa, hitzaldiak, mahai inguruak eta abar. Sinadura bilketarako prestatu duten agirian hezkuntza sistema propioaren beharra, nahia eta eskubidea aldarrikatzen dira.

Adierazpenak eta aldarrikapenak ez dira falta izan unibertsitatean ere. Madrildik etorri den Unibertsitate Legea dela-eta, ikasleak eta irakasleak, guztiak atera dira kalera protestatzera. Espainiako Senatuan oposizioko talde guztiek (PSOE, Entesa Catalana, EAJ eta Talde Mistoa) beto proposamenak aurkeztu dizkiote. Inmaculada Boneta EAKo sendoreak eta Senatuak Hezkuntza Batzordean Talde Mistoko eledunak lege osoari aurka egitea inoiz baino justifikatuagoa dagoela adierazi du. Testuari egindako kritiketan zera aipatzen da: eskuduntza autonomikoak urratzen dituela, unibertsitateko autonomian esku hartzen duela, eta unibertsitate guztietan "berdintasuna" ezartzen duela.

Hala ere, Jose Maria Aznar Espainiako Gobernuak presidentek atzera eman du prest dagoela proiektuari hobekuntza teknikoak egiteko, baina erreformaren sakoneko proposamena hustu eta eraldatu gabe.


Ikas Pedagogia Zerbitzuak euskalgintzako ordezkarien babesa jaso du euskarazko ikasmaterialgintzan egiten diharduen lanarekin jarraitzeko. Akitaniako CRDPko partaide izanik, orain arte Ikas esku zegoen euskarazko material pedagogikoa argitaratzea. Orain, ordea, CDRPren eskuetan jarri nahi dute. Era berean, ikasmaterialetarako batzorde berria sortu nahi dute. Ikas iritziz batzorde hori soberakoa da. Ikasleak eta euskalgintzako beste hainbat erakundeak hitzarmen bat sinatu dute. Besteak beste honako hauek dira sinatzaileak: AEK, sare publikoko eskola elebidunetako irakasleak, eskola giritinoetako zuzendaritza, Euskal Haziak, Hizkuntza Kontseilua, Euskal Kultur Erakundea, Euskal Konfederazioa eta sail giritinoko eskola elebidunetako irakasleak. Hitzarmenean zera eskatzen diete obragintza publikoko partaideei: euskarazko ikasmaterialaren obralaritza Ikas esku uztea eta Akitaniako CRDP pedagogi zentroak frantsesezkoaren ardura hartzea. Ikas 1959an hasi zen euskarazko materiala argitaratzen eta sinatzaileek adierazi dute material horren kalitatea aski frogatua geratu dela. Material hori lau sareetako irakasle eta arduradunen artean hartzen da adostasunean. Hezkuntza administrazioko ikuskariek gainbegiratzen dute pedagogia arloa, unibertsitate adituek gaiaren jarraipena egiten dute eta euskaltzainek hizkuntza saila berrikusten dute.

Gazteen irakurzaletasuna

G A I A

Noia sustatu?





Gazteek gutxi irakurtzen omen dute, eta kezka iturri da hori guraso eta irakasleen artean. Zenbait inkesten datuak begiratuta zera ondorioztatzen da: gazteek 18 urterekin 14rekin baino gutxiago irakurtzen dutela, eta jaitsiera hori euskarazko liburuetan nabarmenagoa dela.

Egoera horren aurrean irakurzaletasuna sustatzeko hainbat egitasmo eramaten dira aurrera, eta horretan dihardu Galtzagorri Elkarteak. Beste gauzen artean Liburu Gaztea lehiaketa antolatzen du eta honen xedea gazteen irakurzaletasuna sustatzea eta partehartzea bultzatzea da. Lehiaketako zenbait partaideren iritzia jaso dugu, eta baita lehiaketaren planteamenduari ere. Helburuarekin ados egon arren, bitarteko egokiena ez delako ustea ere badago. Hausnartarako eta eztabaidarako bidea irekia dago, honenbestez.

G



1990ean irakurketa ohiturei buruzko inkesta egin zuen Mari Jose Olaziregi Filologia, Geografia eta Historia Fakultateko irakasleak Hego Euskal Herriko Bigarren Hezkuntzako ikasle txeeetan irakurketa maiztasuna eta gustuak aztertzeko. Hautatutako lagina 14-18 urte bitarteko 2.700 ikaslek osatzen zuten eta 58 ikastetxetara bidali zituzten inkestak.

1994ean bigarren inkesta egin zen. Aurreko inkestako 700 ikasle elkarriketatu zituzten. Garai hartarako 18-22 urte zituzten eta gehienak unibertsitate ikasketak egiten ziharduten. Helburua zen eskolatik irten eta gero gazte hauen irakurketa gustuak nola aldatzen ziren aztertea. Irakurketa ohiturez gain, zaletasun honek eragiten dituen jarrera etikoez ere egin zitzaizen galde.

Emaitzei begiraturaz, ondorio asal-dagarriena, dudarik gabe, adinarekin euskarazko irakurketen jaitsiera ematen zela izan zen. Adinak gora egin ahal, irakurketa ohitura gutxitu egiten da. Ikasleen erantzunak kontuan hartuz, gutxiago irakurtzen dute guztiak 18-22 urterekin 14-18rekin baino. Honenkin batera, guztiz adierazgarria da jaitsiera hau euskarazko irakurketetan ematen dela batik bat: erdarazkoari dagokionean, desberdintasunak ez dira hain handiak.

Ondorio horri euskal literaturarekiko ezagutza edo zaletasunik eza gehitu beharko genioke, 1994ko udan irakurritako liburuen zerrendan ez baitzegoen azken hamar urteetan argitaratzen hasitako euskal idazlerik.

Orokorrean, zenbait titulu kenduta, euskarazko irakurketek emozio "hotzak" eragiten zituztela ondorioztatzen zuen Olaziregi. Horren eragilerik nagusia eskola zela kontuan hartuz, ikasleei agintzen zaizkien irakurgaiak edo hauek bideratzeko erabiltzen diren prozedurak ez direla oso egokiak esan daiteke.

Era berean, dudaezinezkoa da eskolak irakurzaletasunean duen zeregina. Aipatu inkestetaren emaitzei ja-

rraiki Euskal Literaturako klaseek ongi informatzen dutela zeritzoten ikasleek, baina ez zutela irakurzaletasunik sortzen. Horregatik, batxilergoa amaitu ondoren, euskarazko irakurketa jaitsi egiten da nabarmen, eta plazer hutsagatik irakurtzen dutenean, gaztelaniazko testuetara jotzen dute ikasleek gehienetan.

Alabaina, eskolak ez duela irakurzaletasun sendo eta ugari egirik sortzen esatea erdizkako egia (edo gezurra) dela uste du Olaziregi. Gurasoek irakasleen esku uzten dute irakurzaletasunaren sustapena eta noski, irakasleak gehiegizko erantzunkizuna hartzen du. Olaziregi ez du dudarik egiten irakaslea eta berak duen irudia dugula irakurketarako animatzaile garrantzitsuenetakoa, baina horretarako, irakasleari eskura jarri behar zaizkiola irakurzaletasuna sustatzeko baliabideak.

Horregatik, nahiz eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Curriculum Diseinu berriak *irakurle aktiboak* lortzea izan helburu, zailtasunez emango dira aurrerapausoak literaturlanak zatika irakurrituz, efektu estetikoak baztertuz edo testuak linguistikoki soilik aztertuz. Metodologia berriak behar ditu eskura irakasleak, irakurketaren ludikotasuna berreskuratuko diotenak. Taldeka ozenki irakurri, irakurketa literarioari tartetxo bat egin, idazketa tailerrak landu, liburutegiatarako animazio kanpainetan parte hartu, irakurketa asteak antolatu, eskolako liburutegiak sendotu, idazleek eskolara egiten dituzten bisitaldiez baliatu... prozedura guztiok xede hezitzaile murriz diezaiekete literatura klasei eta helburu literarioa indartu.

Irakasleak *orientatzaile* huts izate-tik *animatzaile* izatera pasa behar du eta horretarako beharrezkoak zaizkio titulu berrien gaineko argibideak, adinari dagozkion gustuen ezagutza... eta abar luzea. Beste gauzen artean, horretarako sortu zen Galtzagorri elkar-tea.

Galtzagorri elkartea

1990ean sortu zen elkarte honen helburua garbia da: euskal literatura sustatzea haur eta gazte literaturaren eremuan. Orain arteko ibilbidean xede hori bultzatzeko egitasmoak gauzatu ditu: irakurzaletasuna sustatzeko programak, biltzarrak, erakusketak, Behinola aldizkaria...

Elkartek 200 bazkide inguru ditu, denak ere haur eta gazte literaturaren inguruan dabiltzanak edo interesa dutenak: idazleak, irudigileak, liburuzaingarriak, ipuin kontalariak, irakasleak...

Bere jarduera euskal literatura eta Euskal Herrira bideratzen den arren, estatuko OEPLI elkarteko eta nazioarteko IBBY erakundeko partaide da. Esperientziak elkartrukatzeko, elkarren berri jakiteko eta euskarazko literatura ezagutarazteko bide ematen diote bi elkarteok.

Haurrak eta gazteak dira elkartearen jomuga, beroien irakurzaletasuna sustatzea, alegia. Horretarako, mugari bat baino gehiago gainditu behar dira, eta gazteen kasuan handiagoak izan ei dira, gainera. Gaur egungo gazteek gutxi irakurtzen dute, lehen ikusi dugun bezala, eta hori aldatzeko hainbat ekimen ditu esku artean Galtzagorri elkarteak. Bata **Liburu Gaztea literatur lehiaketa** da. Iaz jarri zen martxan Gipuzkoan Foru Aldundiaren laguntzarekin, eta aurtien Bizkaian ere abiatu da.

DBHko ikasleei zuzendutako literatur lehiaketa da, eta gazteen irakurzaletasuna sustatzeaz gain, beraiek epaimahaikide izatea bultzatu nahi du. Alegia, euren iritzi eta gustuetara hurbildu nahi du. Horixe da beste edozein literatur lehiaketetatik bereizten duen ezaugarria, hain zuzen ere. Baina nola lortzen du hori? Nola bideratzen du gazteen parte-hartzea? Leire Ugalde Galtzagorri elkarteko idazkariak azaldutakoaren arabera *“orain arteko lehiaketa guztietan epaimahaia helduek osatzen dute eta horren aurrean guk galdera bat*



Leire Ugalde Galtzagorri elkarteko idazkariak eman digu Liburu Gaztea literatur lehiaketaren berri.

planteatu genuen: zergatik ez sortu gazteek beren parte-hartzea izango duten lehiaketa bat? Azken finean, beraiei zuzendutako literatur genero batekin ari gara, eta zergatik izan behar dute beti helduek azken hitza?”.

Galtzagorrikoen nahia gazteek beren iritzia ematea zen, eta azken hitza helduena izango ez zuen lehiaketa bat sortzea. *“Ideia oso polita zen, baina praktikara eramatea ezinezkoa zela konturatu ginen. Azken urteko libururik onena saritzeko, produktutako guztia aztertu behar da, eta hori ezinezkoa da gazteentzat”.*

Beraz, gazteen esku-hartzea bideratzeko eta bermatzeko beste modu bat aurkitu zuten: hautaketa batzorde bat eratzea produkzio guztitik liburu kopuru bat aukeratzeko. Batzorde horrek azken urtean argitaratutako guztia irakurtzen du eta bere iritzi onenak diren liburuak aukeratzen ditu; lau DBHko 1. ziklorako eta beste lau 2. ziklorako. Aurretiako aukeraketa bat egiten du, baina horietatik onena zein den gazteek erabakitzen dute. *“Onena zein den esan beharrea batzordeak bere ustez onak direnak aukeratzen ditu, eta gazteek erabakitzen dute horietatik onena zein den”.*

Lehiaketa guztiek bezala, parte hartzeko oinarri batzuk daude Liburu Gaztea sariketan. Alabaina, oinarri malguak dira, hots, aukera anitz daude eta horien berri eman digu Ugaldek. *“Ikastetxetara zuzentzen gara eta lehiaketa aurkezten diegu. Gazteen parte-hartzea bultzatu nahi dugula azpimarratzen dugu, eta horretarako modu bat baino gehiago dau-*


de. “Zenbait ikastetxetan DBHko ikasle guztiek hartzen dute parte, beste zenbaitetan ziklo batekoek, beste batzuetan gela osoak eta beste batzuetan ikasle bakar batzuek. Eskola batzuentzat onena ikasle guztiek esku-hartzea da, beste zenbaitentzat hautazko gai bezala uztea eta hainbatentzat Euskarako klasean lantzea. Ikastetxe bakoitzak bere programazioa eta bere curriculum aurreratu eta bakoitzak erabaki behar du nola bideratuko duen. Guk ez dugu inolako mugarik eta baldintzarik jartzen. Ez dugu esaten ikasle guztiek parte hartu behar dutenik, eta ezta liburu horiek soilik irakurri behar dituztenik ere. Beraiek erabakitzen dute parte hartu edo ez, eta nola”.

Galtzagorri elkartekoek argi dute Liburu Gaztea irakasle eta ikasleek duten tresna bat gehiago dela, baina ez bakararra. Hori argi utzi nahi izaten dute. *“Ez du esan nahi honetara mugatu behar dutenik eta liburu horiek soilik irakurri behar dituztenik, ezta gutxiagorik ere. Honek ez du kentzen ikasleak liburutegi batera eraman eta nahi dituzten liburuak hautatzea. Gure asmoa ez da irakurketa mugatzea, aukera bat eskaintzea baizik. Horretarako, liburu zerrenda baten proposamena egiten dugu. Ez dugu esaten zerrendan ez dauden liburuak txarrak direnik, baizik eta onak diren batzuk hautatu. Horrela, irakasleei eta ikasleei produkzio guztitik onak diren batzuk proposatzen zaizkie. Alde horretatik, aholkularitza funtzioa betetzen dugu”.*

Nola sustatu?

Iñaki Zubeldia

Idazlea

Lehiaketa egokia
al da?

Galtzagorri elkartearen asmo onak ukatu eta zalantzan jarri gabe, Liburu Gaztea lehiaketa egoki ikusten ez duten zenbait badira. Alde positiboak eta negatiboak ikusten dizkion jendea dago, iritzi guztiak ez datoz bat. Eta muinean gazteen parte-hartzea dago. Ugaldek hasieran aditzera ematen duen bezala, azken helburua gazteek beraien hautua egitea da. Horren haritik sortu zen Liburu Gaztea, baina lehiaketaren planteamenduarekin bat ez datozenak ere badira eta horietako bat da Iñaki Zubeldia idazlea. Bere ikuspegiaren argudioak eman dizkigu, eta jarraian dituzue.

1. Irakurketa jarduera libre da, norberak bere esperientzia, gustu eta zaletasunen arabera egin behar duena. Gaurko gazteen zaletasunak eta gustuak, guk nahi edo nahi ez, ez dira

duela 30 urte gazteek zituztenen berdinak. Gaurko munduak halako abiadura darama zaletasunak, gustuak, ezagutzak, mundua ikusteko eta sentitzeko erak guztiz aldatu dira eta guri gustatzen zaigun zerbaitek agian ez dio ezer esango gaurko gazteari, eta guri gustatzen ez zaigunak agian izugarritzko zirrara eragingo dio.

Horregatik, aukera librea ematearen garrantzia. Gazteen artean ere *radio makutok* funtzionatzen du oraindik, eta esango diote elkarri: *“Hau zozote hutsa duk, ez zegok ekintzarik...”* edo *“Hau oso polita duk... Ez zekiat zer daukan, baina barrura iristen zaidak...”* edo *“Hemen izugarritzko umorea eta ironia topatuko duk... Nik ederki pasa diat...”*


2. Aukeratu diren liburuak oso onak izango dira, horretaz ez dut dudarik egiten. Nik irakurri ditudanak, ez baititut denak irakurri, oso onak dira. Beraz, arazoa ez da liburu onak diren ala ez. Hau oso garbi utzi nahi dut. Eta hala gera bedi. Nik, hasteko, ez daukat ezertxo ere hor aukeratu diren liburuen aurka, eta askoz gutxiago oraindik aukeratu diren egileen aurka. Abiapuntua bera da okerra, nire ustez. Gazteei ez diegula utzi aukeraketa zabala, osoa egiten. Eta hala egin izan balitz, gerta zitekeen ondorio berdinetara iristea; alegia, libururik onenen edo gustukoenen artean zortzi horiek aurreneko tokietan azaltzea. Huraxe izango zen benetako sariketa garbia eta zalantzarik gabekoa.

3. Euskal idazleentzat, oro har, oso kaltegarria da sariketa hau, gehien-

goa jokoan kanpo uzten duelako eta ikasleek euskal idazle gehienen liburuak irakurtzeko aukerarik ere ez dutelako izango. Obligazioz urtean lau liburu irakurri behar baldin badituzte eta eskola guztietan liburu horiek barririk irakurtzen badituzte, beste liburuak oso jende gutxi irakurriko ditu eta ez dute aukerarik izango jakiteko euren gustukoak diren edo ez. Badakigu DBHn ez dela gehiegi irakurtzen eta derrigorrean lau liburu jakin horiek irakurtzera behartzen baditugu, beste liburuentzat apenas geldituko den aukerarik.

Esandakoaz gain, itzulitako liburuak ere sartzen baditugu lehiaketa honetan, oraindik gogorragoa da euskal idazlearen lehia, suposatzen baita munduko autore kontsagratuak direla lehian dauzkagun horiek: 2000-2001eko sariketan Jaime Cela, Christine Nöstlinger eta Daniel Pennac sartu dira, hau da, zortzi autoretatik hiru. Beste modu batera esanda, % 37,5.

Honek zera dakar, lehiaketaz kanpo geratu diren euskal idazleen liburuak ez saltzea, beraz, ez irakurtzea eta aukerarik ere ez ematea jakiteko liburu horiek politak, literarioak, interesgarriak, gazteen gustukoak diren. Eta ez oso epe luzera beste hau ere ekar dezake: argitaletxeek euskal obra gehienak ez argitaratu nahi iza-



tea edo Galtzagorriko adituek esandako obrak bakarrik argitaratu nahi izatea.

Bide horri jarraituz, zergatik ez gauza bera egin Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako liburuekin ere? Orduan gehiago itxiko da oraindik inbutua eta ez dakit zenbat idazle eta zenbat argitaletxe egongo lirakekeen adituen *tirania* hori jasateko prest. Giroa asfixiantea bihurtuko litzateke eta makina bat liburu polit, interesgari, haurren gustuko zabortegean geratuko lirakeke *bonzoek* esandako lau liburu zerutiar horietatik kanpo geratuko lirakekeelako.

Atal honen hasieran esan dugu sariketa hau euskal idazleentzat, oro har, oso kaltegarria dela. Beste ikuspegi batetik ere aztertu nahi nuke baieztapen hau. Urtean 20/30 liburu argitaratzen dira gazteentzat. **II. Liburu gaztea** sariketa martxan jartzeko, 2000. urtean argitaratutako 24 liburu aztertu behar dituzte, horien artetik zortzi aukeratzeko. Horrek esan nahiko du beste 16 liburuak ia-ia zirkulaziotik kanpo geratuko direla Gipuzkoan. Ikastetxeetan agindutako zortzi liburu horiek irakurriko dituzte, DBHko 1. zikloan lau eta 2. zikloan beste lau. Hortik kanpo oso zaila izango da ezer gehiago irakurtzea Gipuzkoako gazteek. Horrek uniformitate antzu bat ekarriko du eta 16 liburu baztertuak oso nekez hartuko ditu inork eskuetan. Aukera libre balitz, liburu guztiek atea irekita edukiko lukete gutxienez eta toki batzuetan liburu batzuk eta beste batzuetan beste batzuk irakurriko lituzkete, denentzat aukera berdintasuna gordez.

Liburu gaztea sariketa honen parean bada beste sariketa bat Euskal Herrian hau baino lehenago hasi zena eta modu demokratikoagoan egiten dena: **Juul** egitasmoaz ari naiz. Nafarroako ikastoletako haur gehienek hartzen dute parte, adinen arabera sailkatuta:

- 6 urte bitarte
- 6 urtetik 9 urtera
- 9 urtetik 12 urtera
- 12 urtetik aurrera

Hemen haurrek nahi dituzten liburuak irakurtzen dituzte, elkarri liburu interesgarrien berri ematen diote, eskolako eta herriko liburutegiak bisitatzen dituzte, gurasoak inplikatuak daude egitasmoan eta haurrei laguntzen diete... Badakit urtebetean ezin dituztela liburu guztiak irakurri, liburu on batzuk ez direla haur batzuen eskuetara iritsiko, akats gehiago ere egongo direla... Baina, hala ere, urtetik urtera liburu aukeratuak aldatu egiten dira, ez dute beti liburu bera aukeratzen gustukoena bezala (beraz, eboluzio bat dago), liburu askoren artean barreiatzen da bozketa... Baina, batez ere, haurrak dira liburu gustukoena aukeratzen dituztenak. Haurren gustua errespetatu egiten da eta liburu guztien aukera ere bai.

4. Liburu aukeraketa bera oso eztabaidagarria da. Zein irizpideren arabera aukeratzen dira liburu onak edo egokienak? Nolatan ez dago gazterik aukeraketa hori egiterakoan? Helduen literatur jakituriak derrigor markatu behar al du gazteen liburu zaleatasuna eta gustua? Gero, *gazte liburua* deituko diogu, *gazteen libururik gustukoena* edo *gogokoena*, gazteek aukeratutako liburua balitz bezala, erdizka (edo herenka: 24tik 8 = herena) bakarrik denean egia.

Eta honaino heldu garenez, nork juzgatuko ditu juezak, nork epaituko ditu *bonzoak*, nork jarriko ditu bere tokian kritikoak eta sasikritikoak? Agian, orduan beranduegi izango da.

Honetaz guztiaz pentsatzerakoan, *Descubriendo a Forrester* filma etortzen zait burura. William Forrester idazlea kokoteraino dago kritikoek bere obraz egiten duten interpretazioarekin eta, familia osoa hil zitzaizolako, bakardadean isolatuta bizi da, Bronxera ematen duen leiho bat duen kanpoko munduarekin lotzen duen hari bakarra. Jamal Wallace izeneko 16 urteko mutil gazte beltza ezagutzen du eta haren lagun egiten da. Dohain bereziak ditu saskibaloiarako eta literaturarako. Baina, beti dago jakintsu bat bidean zango traba egingo dizuna eta Jamal Wallace gizarajoak ere topatu zuen bere balioak gutxietsi eta bere beltz txiroaren konplexua sudurraren puntan jarriko ziona: Crawford literaturako profesorea zen tiparrajo hau. Jamal Wallace gaztearen trebezia eta balioa eraman ezinik, eskolatik bidualtzen saiatzen da. Orduan, William Forrester bakartia, bere isolamendutik ateratzen da eta eskolan ezustean azalduz, testu bat irakurtzen du eskolako zuzendaritzaren aurrean, testu hunkigarri eta eredugarri bat. Eskolako zuzendaritzak txaloak jotzen diz-



kio halako maisu-lan baten aurrean txunditurik eta losintxak egiten dizkio haren adiskidetasuna eskolaren zerbitzura jarri nahirik. Baina William Forresterrek apaltasun osoz esaten die hitz haiek bereak ez baizik eta Jamal Wallacerenak direla, jenio handi eta gazte batenak. Denak sinestu ezinik geratzen dira eta eskolako zuzendaria bere babesean hartzen du beltz gaztea, Crawford profesore bekaiztiaren eskuetatik salbatuz.

Berriro harira etorritik, bere lekuan jar dezagun kritikoaren lana. Askotan entzun izan dut: *Liburu txar asko argitaratzen da. Honek literaturari ez dio ezer aportzatzen.* Eta hori kritiko ofizialen ahotik entzun dut. Baina, galdetzen badiezu zertan oinarritzen diren liburua txarra dela esateko, ez duzu erantzunik jasoko. Esaten dizute eztabaida horretan ez direla sartuko. Orduan, zertan gelditzen gara? Liburua ez dakit txarra izango den, baina kritika bai, benetan txarra da eta kritiko ere bai. Bere baieztapena defendatzeko argudiorik eman ezin duen kritiko, zer nolako kritiko da? Intuitiboa? Subjektiboa? Kapritxosoa? Apeatsua? Fobiaz eta filiaz betetakoa?

Gai hau argitzeko ondo dator Jon Alonsok idatzi zuen *Bi hitz kalitateaz* izeneko artikulu bikaina. Oso gauza interesgarriak esaten ditu bertan eta hona ekarriko ditut Jon Alonsoren hitz batzuk:

"Kontu zaila da kalitatearena, inondik ere. Guztiz subjektiboa delako. (...) Nik ez dakit zer den kalitatea nire iritziaz haratago. Bide batez esanda, nagikeria galanta iruditzen zait lan bat epaitzea "ona" edo "txarra" dela esanda, besterik gabe. Lan baten alderdi positiboak, negatiboak, anbizioak, une historikoarekiko egokitasuna, asmoak, zer harreman klase sortzen den proposatzen duen irakurlearekin edo tradizioarekin, hizkuntzaren aberastasuna, narratzeko tekniken erabilera... horiek denak eta beste batzuk hartu beharko genituzke aintzat idazlan bati buruzko iritzia ematerakoan. Horiek -eta bes-

G A I A

Gazteen irakurzaletasuna

G

Nola sustatu?

te batzuk- guztiak neurtu eta gero, agian, mintza gintezke kalitateaz edo kalitate faltaz; bakoitzak -subjektiboki- horietako bakoitzean eskakizun maila non jartzen duen. Honez guztiaz ezer esan gabe "on" eta "txar" batekin erabakitzen diren epai sumarioek errezeloz betetzen naute. Errezeloz kritikaren egileari buruz. (...) Kritikak esan dezake lan bat txarra dela, baina gero, ehun milaka ale saltzen badira... saltzeak ez du kalitatea egiaztatzen, baina sosaren txintxinak ahots asko isilaraziko ditu. Aitzitik, kritikak lan bat ona dela esan dezake, baina gero, publikoari ez bazaio interesatzen... horrek ez du kalitatea ukatzen (ezta bermatzen ere, egia esan), baina bestelako esplikazioak asmatu beharko dira gertara argitzeko. (...)"

Beste aipu hau ere Jon Alonsoren



"Badakigu DBHn ez dela gehiegi irakurtzen eta derri-gorreetan lau liburu jakin horiek irakurtzera behartzen baiditugu, beste liburuentzat apenas geldituko den aukerarik"

lanen batetik hartutakoa da, baina ez dakit nondik: *"Sariak eta objektibotasuna uztartzea ezinezkoa da. Zenbat eta sari handiagoa, orduan eta aukera gehiago interesak kalitate literarioa gailentzeko. (...) Epaimahaikoen laguna izatea da irabazteko bideirik seguruena."*

Eta literatura modernoaz ari garenez, ezin dut aipatu gabe utzi J. K. Rowling-en kasua. J. K. Rowling da *Harry Potter* mago ikasle paregabearen idazlea (ama figuratiboa), emakumea baita J. K. Rowling hau. Editoreak esan zion historia horrekin eta ezezaguna izanik ez zuela liburu asko salduko. Eta, gainera, emakumea izanik, arrisku handiagoa zeukala baztertua

“Liburu Gaztea sariketaren parean bada beste bat Euskal Herrian hau baino lehenago hasi zena eta modu demokratikoagoan egiten dena: Juul egitasmoaz ari naiz”

izateko. Horregatik emakume izena J. K. inzialen gerizpean gorde zuen. Eta gaur egun milioika eta milioika liburu saltzen ditu, munduko haur guztien gozamenerako eta zoramenerako. Haren obra (*Harry Potteren* lau liburu atera dira dagoeneko) Britainia Handitik mundu osora zabaldu da, euskaraz eta txineraz ere argitaratu delarik.

Honek guztiak garbi adierazten digu aurreiritzi eta agian interes ez oso zuzen ugari dabilela literatura munduan. Egin dezagun ahalegina desbiderazio horietan ez erortzeko eta euskal literaturan ari direnei bidea errazteko.

5. *Liburu gaztea* izeneko sariketa hau irakasleentzat *txollo* hutsa da, horrela ez baitaukate libururik irakurri eta aukeratu beharrik. Lan hori kanpotik egiten zaie. Eta gainera, liburuak ez badira gustatzen, errua aukeratu dituztenei bota eta kito!

Horrez gain, lehiaketa kutsua ematen zaio jarduera honi eta ikasleak motibatua goak daude irakurtzeko. Eta, azkenean, sariren bat ere irabaz dezakete: Pariserako bidaia. Zeren eta 50 liburu eskolari oparitzea ikasle gehienentzat ez baita horrenbesteko saria izango. Baina Parisa joatea bai eta doan gainera!

Baina, honela, idazleei izugarriko kaltea egiten zaie eta ikasleei ere

bai, ez baita norberaren gustua eta aukeraketa libre bermatzen.

6. Diputazioaren jokabidea ere ez zait egokia iruditzen. Ez dut zalantzan jartzen asmo ona eta gazte literaturari lagundu nahia, baina asmoak prozedura zuzenez eta jokabide garbiz eraman behar dira aurrera. Modu honetan Diputazioak idazle eta argitaletxe konkretu eta mugatu batzuei ematen die laguntza aurreko urteko produktio osoaren izenean. Diputazioak berak antolatu nahi baldin badu gazte liburuaren lehiaketa bat, libre da hori egiteko eta biderik zabalena eta garbienak erabili beharko ditu hori aurrera eramateko. Baina, Gazteen Libururik Gustukoena deitu eta 24 liburutik zortzi aukeratzea eta gazteen eskutian jartzea, ez da jokabide garbia eta irekia. Hortik aterako diren gazteen libururik gustukoena, biziata dataz, ez dakigu benetan hala diren. Zergatik? Aurretik pertsona helduek egin dutelako aukeraketa, gazteek egin behar zutena. Eta kritiko heldu horien artean *norbait* idazle dexenterentzat susmagari denean bere filia eta fobiak oso nabarmenak direlako, orduan lehiaketak bere garbitasuna galtzen du, eta bere eginkizuna ere bai, idazle eta argitaletxe batzuk kaltetuak suerta daitezkeelarik. Edonola ere zenbait argitaletxeren liburuak ez dira sartu zortzi aukeratu horien artean, eta arestian esan dugun bezala, liburu horiek nekez irakurriko dira Gipuzkoako ikastetxeetan. Diputazioak diskriminazio hau bultza eta patroizina al dezake? Ez zait bidezkoa iruditzen. Merkatuak berak aukeratuko ditu onak edo gustukoak dituenak eta hain onak eta gustukoak ez dituenak baztertuko. Euskal Editoreen Elkarteak eta Euskal Idazleen Elkarteak zerbait esan behar lukete honetaz edo gutxienez kontsultatuak izan behar lukete.

Orain arte esandako guztia laburbilduz, ondorio hauek jarri nahi nituzke irakurlearen aurrean, bukaera gisa:

– Asmo ona ez da hemen zalantzan jartzen. Baina asmo onenarekin



ere gauzak modu ez egokian egin daitezke.

– Liburuaren aukera gazteek egin behar lukete, eta, ondorioz, egile eta liburu guztiei atea irekita utzi behar zaizkie. Honela ez dago diskriminaziorik edo susmo txarretarako motiborik.

– Orain arte erabili den prozedura, hau da, aditu batzuek zortzi liburu aukeratu eta beste guztiak jokoan kanpo uztea, oso kaltegarria da euskal idazleentzat eta uste dut argitaletxe gehienentzat ere halaxe gertatzen dela.

– Liburuaren aukeraketa sistema oso eztabaidagarria da: idazleen gehien-go kanpoan uzteaz gain, nork epaituko ditu epaileak?

– Irakasleentzat *txolloa* da sistema hau, baina ikasleentzat ez, eta irakasleentzat, instituzio bezala, ere ez, perspektiba oso itxia eta murrizta ematen baitaie ikasleei.

– Eta, azkenik, Diputazioaren jokabidea ere ez zaigu egokia iruditzen, aukera mugatu, itxi eta baztertzaila bati dirulaguntza ematen zaiolako eta idazle eta argitaletxe dexente *a priori* laguntza horretatik kanpo uzten dituelako.

Maribi Apraiz

Galdakaoko Elexalde BHI
Euskara irakaslea

Lehenengo aldiz parte-hartzen duzue aurten Liburu Gaztea literatur lehiaketan. Nola antolatu duzue?

DBHko 2. zikloan jarri dugu martxan, 3. eta 4. DBHn, alegia. 3. DBHn lau talde daude eta 4. DBHn hiru talde, eta talde bakoitzean 20 ikasle inguru daude. Azken hauetako biren ardura daukat nik. Printzipioz ikasle guztiek hartuko dute parte lehiaketan, hots, Galtzagorri elkarteak proposatutako lau liburuak irakurraraziko dizkiegu denei Euskarako ikasgaiaren barruan. Ondoren, liburu bakoitzaren laburpena egin beharko dute eta nahi duenak iritzi arrazoitua eman ere bai. Derrigorrez irakurri beharreko beste libururik ez dute izango, eta lanik ere ez. Nolanahi ere, lau liburu hauetatik aparte, beraien gogoko dituztenak ere irakurri ahal izango dituzte.

Zergatik erabaki duzue liburu hauen irakurketa denei behartzea eta ez aukeran jartzea?

Aukeran jarritz gero, ez luketelako irakurriko. Guk euren irakurzaletasuna sustatu nahi dugu, eta modurik egokiena, hautatu duguna dela iruditzen zaigu.

Bestalde, kontuan hartu behar dugu gure ikasleen euskara maila ez dela oso aberatsa eta dotorea, eta guztiek daukatela euskaraz irakurtzeko premia.

Proposatutako lau liburuekin irakurzaletasuna bultzatzea lortuko duzuela uste al duzue?

Ez dakit lortuko dugun ala ez, baina saiakera egin beharra dago. Konkreteki bi libururekin baietz iruditzen zait, baina beste biek... ez dakit. Ez zaizkit oso egokiak iruditzen. Nik ez nituzkeen aukeratutako 15-16 urteko gazteentzat. Ikuspegi pedagogiko eta psikologikotik agian egokiak izango dira zenbait gauza ikas ditzaketelako, baina lehendabizi gustatu egin behar zaie, entretzenigarriak eta irakurterazak izan

G A I A

Gazteen irakurzaletasuna

Nola sustatu?

behar dute. Eta bi libururen kasuan horiez dela gertatzen uste dut. Horregatik, hasieran beste biek hasi gara, zailenak azkenerako utziz.

Zer onura ikusten dizkiozu Liburu Gaztea lehiaketan parte hartzeari?

Hasieran Galtzagorri elkarteak egitasmoa proposatu zigutenean ondo iruditu zitzaidan, batez ere guk alde aurretik egin behar dugun lana egin dagoelako; hau da, liburuak hautatuta daudelako. Ondoren, liburuak irakurri eta gero, ez naiz oso konbentzita gelditu liburu guztiekin. Nik beste aukeraketa bat egingo nukeen. Baina aldi berean, konturatzen naiz erreferentzia gutxi ditudala hautaketa egiteko, helduentzako liburuak irakurtzen baitituzte eta gazteentzat argitaratutako produktio guztia ez baitut ezagutzen.

Beste onura bat ere ikusten diot lehiaketari. Hainbat herritako adin beretsuko gazteek liburu berak irakurtzen badituzte, ondare bat eratuko dutela iruditzen zait, eta hori positiboa da.

Zer iradokizun edo aldaketa proposatuko zenituzke lehiaketarako?

Nik euskaraz sortutako liburuak eta itzulpenak bereiztu egingo nituzke. Izan ere, bigarrenei nabaritu egiten zaie itzulpenak direla, eta zenbait egitura birritan edo hirutan irakurri behar izaten dira ondo ulertu ahal izateko. Ez dut esaten itzultako liburuak irakurri behar ez direnik, baizik eta bereiztu egingo nituzkeela. Euskaraz sortutako bi eta itzultako beste bi proposatuko nituzke.

Ikasleen aldetik nolako harrera izan du lehiaketak?

Maribi Apraiz:
“Nik beti esaten diet liburu bat gustatzen ez bazaie, uzteko. Helduok ere gauza bera egiten dugu”



Harrera ona izan du. Hori bai, hasieran produktua saldu egin behar zaie. Ondo azaldu behar zaie Galtzagorri elkartea zer den, lehiaketa zertan datzan, zergatik antolatzen den, zer eta nola egingo dugun...

Guztiak hasi dira liburuak irakurtzen eta ikasturtean zehar ikusiko dugu zer egiten duten. Nik beti esaten diet liburu bat gustatzen ez bazaie, uzteko. Helduok ere gauza bera egiten dugu. Horixe da lortu behar duguna; heldutasun nahikoa izatea zer gustatzen zaien eta zer ez esateko. Batzuek badaukate, erreferentziak badituzte eta irakurtzen ohituta daude. Baina beste batzuek ez. Iritzi arrazoitua eman dezaten lortu nahi dugu.



Marilis Telletxea

Hondarribiko San Jose ikastetxea
Euskara irakaslea

Bigarren aldia da Liburu Gaztea lehiaketan parte hartzen duzuela. Lazkoa ondo atera zenaren seinale al da?

Bai, iaz oso gustura gelditu ginen, espero baino hobeto erantzun zuten. Gure ikastetxea Beredukoa da eta ikasleak ez daude euskaraz irakurtzen ohituta. Guraso erdaldunak dituzte askok eta etxean ere gaztelaniazko liburuak erosten dizkiete. Horregatik, lehiaketak euskarazko liburuak irakurtzera motibatu zituen. Lehiaketaren berri eman genien, beraiekin hitz egin eta komentatu genuen eta Pariseko bidaia sari bezala egoteak asko animatu zituen. Batzuk gogo gehiago zuten eta beste batzuk gutxiago, baina bidaia tokatuz gero denak joango zirenez, denek irakurtzea erabaki zen azkenean.

Zer irakurtzen dute, gelan ala bakoitzak bere kasara?

Irakurri bakoitzak berea irakurtzen du, baina denok erritmo berean. Hau da, Euskarako klaseetan lantzen dugu: komentarioak egiten ditugu, pasarteak irakurtzen ditugu denon artean, jokoak egiten ditugu, hipotesiak planteatzen ditugu... Hortaz, irakurzaletasuna bul-

Marilis Telletxea:

“Irakurzaletasuna bultzatzeaz gain, hizkuntza lantzeko baliagarria da: pasarteak irakurtzen ditugu, jokoak egin, hipotesiak planteatu eta abar”

tzatzeaz gain, hizkuntza lantzeko baliagarria da.

Gustura irakurtzen al dituzte beraiek aukeratu gabeko liburuak?

Gure ikasleek bai. Lehen esan bezala, beraiek ez dute ohitura handirik euskaraz irakurtzeko, eta ez dituzte euskarazko liburuak ezagutzen. Alde horretatik ez dute kontrako ezer adierazi lehiaketako liburuak proposatutakotan. Beste gauza bat da proposatutako liburuak gustukoak diren ala ez; batzuentzat bai eta besteentzat ez.

Gustatu ala ez, liburu egokiak direla uste al duzu?

Gai aldetik bai, egokiak iruditzen zaizkit, baina zenbaitzuk hizkuntza maila altua dute gure ikasleentzat.

Zer iradokizun edo aldaketa proposatuko zenituzke lehiaketarako?

Lan asko eskatzen du eta presioa ere handia da. Ikasturte batean lau liburu irakurtzeko eta lantzeko nahiko lanizatzen dute. Gainera, liburuak irakurri, kontrolak egin... epeen baitan egoten gara askotan. Lau libururen ordean hiru izango balira lasaiago ibiliko ginatke eta hobeto landuko genituzke.



Maite Argoitia

Bilboko Abusu ikastola
Euskara, Gaztelania eta Ingeleseko irakaslea

Nola planteatu duzue lehiaketa zuen ikastolan?

Ikastolan DBH 1 eta 2 ditugu, 3. eta 4. maila ez ditugu. Horrela, txandakako antolaketa egin dugu; urtarrila bitartean DBH 2ko ikasleek irakurriko dituzte liburuak eta handik Aste Santura bitartean DBH 1ekoek.

Maila bakoitzean 10-12 ikasleko gela dago eta denek irakurriko dute. Irakurketaren ondoren laburpena egin eta iritzia eman beharko dute.

Euskara, gaztelania eta ingeleseko irakaslea zara. Zein alde ikusten dituzu hiruren artean irakurketaren ikuspegitik?

Euskaraz gustura irakurtzen dute, baina arazoak sortzen zaizkie hiztegiarekin, hikarekin eta bizkaierarekin. Eta ulertzeko zailtasunekin aurkitzen direnean alfertu egiten dira. Beraien ama hizkuntza gaztelania da eta euskaraz ikastolan soilik egiten dute. Irakurri ondoren pozik eta gustura gelditzen dira, baina beraien kabuz gaztelaniaz irakurtzen dute; gaztelaniazko liburu eta aldizkariak erosten dituzte eta musika ere gaztelaniazkoa entzuten dute gehienbat. D eredukoak dira, baina gaztelaniaz askoz gehiago irakurtzen



dute. Beraien gustuko liburuak beldu-
rezkoak eta gaztelaniazkoak izan ohi
dira.

Ingelesari dagokionez, ez dute
maila altuegia, baina beren mailan on-
do moldatzen dira.

Zer eskaintzen die lehiaketak irak- sleari eta ikasleei?

Lehiaketa guretzat lagungarria da,
egokiak direlako proposatutako libu-
ruak. Nik ez ditut ezagutzen eta ez naiz
gai aukeraketa bat egiteko. Ingeleseko-
ak, adibidez, ezagutzen ditut.

Lehiaketa bera interesgarria da, eta
erakargarria: logotipoa, posterra, Eus-
kal Herri osoan egiten da... Ofizialtasu-
na ematen dio horrek guztiak eta beste
erakargarritasun bat du ikasleentzat.
Desberdina da irakasleak agintzea li-
buruak edo lehiaketa batekoak izatea.

Maite Argoitia: "Desberdina da irakasleak agintzea libu- ruak irakutze- ko edo lehiake- ta batekoak izatea"



Kruz Ruiz de Asua

Bilboko Ezkurtze BHI
Euskara irakaslea

Zein ikasle animatu dira lehiake- tan parte hartzera?

DBHko 2., 3. eta 4. mailako ikasleak
dabilta. Ikastetxea A ereduakoa da, bai-
na DBHn B ereduakoa gela bana dago
maila bakoitzean. 10-12 ikasle dago tal-
de bakoitzean eta guztiak animatu dira.
Harrera ona izan du lehiaketak.



Nolako jarraipena egiten diezue?

Lehiaketako liburuak ez ditugu ur-
teko programazioan sartu. Horretarako
beste liburu batzuk hautatzen ditu-
gu eta haiek irakurri behar dituzte. Nor-
malean hiru izaten dira, ebaluaketa ba-
koitzeko bat. Hala ere, taldearen arabe-
ra gehiago edo gutxiago izan daitezke.
Liburu horiek dira derrigorrezkoak eta
notarako balio dutenak, lehiaketakoak
ez dira derrigorrez irakurri behar. Nos-
ki, gelan komentatzen ditugu eta libu-
ruak elkarri pasa behar dizkiotenez
kontrola eramaten dugu. Baina aparte-
ko lanik ez dute egin behar.

Zergatik erabaki zenuten parte hartzea?

Idea polita delako. Eta gure kasuan
euskal kulturarekin eta munduarekin
konektatzeko balio digulako. Ezen, irla
batean gaude, hemen ez dago euska-
razko girorik. Hortaz, giro horisortzeko
lagungarria da guretzat.

Kruz Ruiz de Asua:

"Gure kasuan
lehiaketak
euskal
kulturarekin
konektatzeko
balio digu,
ezen,
hemen irla
batean gaude"

G A I A
Gazteen irakurzaletasuna
Nola sustatu?



anjeles iztueta

Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza sailburua



Gure Euskal Herriko etorkizuna
gaur egungo irakasleen esku dago
zati handi batean. Eta hortaz
kontziente dira



Euskal Herriaz beldurrik gabe hitz egin behar dugu, bai liburuetan eta bai mintzatzeko garaian. Errealitate hori existitzen da. Politikoki gaur egun hiru zatitan banatuta dago, baina kulturalki Euskal Herri osoaz hitz egin behar da. Hori gure materialetan beldurrik gabe landu behar dela uste dut

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko sailburu berria da Anjeles Iztueta tolosarra. Emakumezko bat Hezkuntza sailburuaren eserlekuan jesartzen den lehenengo aldia da. Hemendik aurrera, aurreko gizonezko sailburuen argazkien ondoan emakume honena ere zintzilikatuko dute.

Kementsu eta indarrez ekin dio bere lanari, esparru bakoitzeko erronkak argi dituelarik. Horiek lortzeko bidean hezkuntza munduko partaide ororekin kontatu nahi du, iritziak eta proposamenak jaso nahi ditu. Ateak irekita dituela aditzera eman digu.

Zein dira legealdi honetako erronka nagusiak?

Sei erronka azpimarratuko nituzke: 0-3 etaparen arautzea, Lanbide Heziketaren liburu zuria egitea, geure Unibertsitate Lege berria egitea, beken politika birplanteatzea, herrien Europaren berri izatea gure neska-mutilek eta Eskola Itun berria adostea.

Goazen sei erronka horiek banaka aztertzerara. 0-3 etapari dagokionez, zein asmo ditu Hezkuntza Sailak?

0-3 etapa arautzea eta garatzea da erronka honetako zeregina. Etapa hori hezkuntza laguntza bezala ikusten dugu, hau da, biak uztarturik, osotasunean harturik. Ikuspegi horrekin haur eskolen ordutegiak zabalak izango dira eta estaldura aldetik zenbait konpromiso bete behar ditugu legealdiz honetarako. Esate baterako, 2-3 urteko tarte horretan eskariaren %100 bete behar dugu, eta txikietan gutxienez %40.

Proiektu honen buru Hezkuntza Saila izango da, berak koordinatuko du, baina Gobernuak zenbait sailek hartu dute parte. Bat Lan Saila izango da, azken finean 0-3 etapa familia eta hezkuntza, familia eta lana, bateratzeko euskarria delako. Horrez gain, Gai Sozialetarako Sailak ere parte hartuko du, eta Nekazaritzak ere bai, nekazari guneetarako programa bereziak egin behar direlako. Eusko Jaurlaritzaz aparte, udalek eta Foru Aldundiek ere parte hartuko dute.

Beraz, lehen erronketako bat 0-3 etapa garatzea da, ikuspegi zabal batekin eta hainbat sailen artean, betiere Hezkuntza Saila gidari delarik. Izan ere, etapa hori LOGSEren barruan ulertzen dugu, LOGSE malgu baten barruan. Dena dela, LOGSE dagoen bezala ez da geldituko, dagoeneko aldaketa batzuk egin baitira etapa horri dagokionez.

Guk zuzendutako etapa izango da, baina ez geurea soilik, sail eta instituzio gehiagok esku hartuko dute. Ez baitugu hezkuntza ikuspegia soilik sartuko horren barruan, gehiago baizik.



Lanbide Heziketari bultzada berezia eman nahi diozue. Zein neurri hartuz egingo duzue hori?

Lanbide Heziketaren alorrean sailordetza berria daukagu. Gobernuan sailordetza berria sortzeak asko esan nahi du, maila handiko egitura delako. Hor Lanbide Heziketa eta bizitzan zeharreko ikaskuntza bilduko ditugu, eta liburu zuri bat egingo dugu. Liburu horretan kualifikazio sistema berria eta akreditazio sistema berria bilduko dira. Laburki esanda, horren ondorioz edozein kualifikazio bi hilabeteetan sortu ahal izango da. Lehen titulazio bat sortzeko urtebete edo urte eta erdi behar baldin bazen, orain bi hilabeteetan behar bati erantzungo dion espezializazioa eta titulazioa sortzeko ahalmena izango da. Eta noski, titulazioarekin batera akreditazio eta homologazio sistema osoa ere bai.

Esan beharra dago Lanbide Heziketaren inguruan sistema bakarra egongo dela. Hau da, Lanbide Heziketak hezkuntza sistemaren barruko irakaskuntza eta hortik kanpoko hartuko ditu bere baitan. Beraz, lanean eta langabezian daudenek ere aukera berak izango dituzte ikasketak egiteko.

Gainera, Lanbide Heziketa modularra izango da. Horrek esan nahi du edozein ikasketak 40 orduko modulutan zatituko dela. Normalean hezkuntza sistemaren barruko ikasketak 200-300 orduko modulutakoak izaten dira, baina hezkuntza sistematik kanpokoak gutxiagokoak. Hori egokiagoa da lanean dabilzanentzat.

Hezkuntza sistemaren barruko Lanbide Heziketa Hezkuntza Sailak

bideratzen du eta Lan Sailak ere parte hartzen du. Eta sistematik kanpokoan, aldiz, Foru Aldundiek eta udalek ere parte hartzen dute. Beraz, erakundeen arteko lana da eta denek esku hartzen dute prestakuntza alor horretan ere.

Lanbide Heziketari lotuta, Europan Udal eta Eskualde Agintarien Elkarrekin sortu berri da eta lehendakariorde kargua duzu zuk. Zer eragin izango du hemen?

Guretzat politikoki eta estrategikoki edo profesionalki garrantzi handikoa da. Garrantzia du, alde batetik, herrien Europaren inguruan aurrerapauso bat delako, eta beste aldetik, prestakuntza alorrekoa delako. Hainbat herrialde historiko daude elkartean: Gales, Toscana, gu... eta laster sartuko dira Babiera, Eskozia... Hezkuntzaren mundua eta herrien Europa lotzen dituen erakundea da.

Madrilgo Unibertsitate Lege berria onartu da, eta horren aurrean zer jarrera hartuko du Hezkuntza Sailak?

Gure unibertsitatearen autonomiaren kontra doa guztiz, eta baita gure autonomia politikoaren aurka ere. Horren aurrean geure Unibertsitate Legea egingo dugu eta hemengo Legebiltzarrean eramango dugu. Horko taldeak ados jartzen baldin bagara eta onartzen baldin badugu, hori izango da gure legea. Adostasun hori lortzeak asko esan nahiko du.

Lege organikoek ez al dute hemengo autonomia baldintzatzen?

Guk geure autonomiaren barruan hezkuntza maila guztietan eskumen osoa daukagu. Hortaz, unibertsitate esparruan ere geure legea egiteko eskumen osoa daukagu.

Horrez gain, unibertsitatearen autonomia bultzatuko duen lege berria egin behar dugu, eta ez administrazioaren esku-hartzea bultzatuko duena.

Beken politikaren birplanteaketa da aipatu duzun laugarren erroka. Zein aldaketa egingo dira arlo horretan?



Beka politika guzti-guztia birplanteatuko dugu; 0 urtetik hasi eta unibertsitatea bukatu bitartean. Aldaketa horrekin bekaren politika horretan kontzeptu gehiago sartuko ditugu: matrikulak, liburuak, jantokiak, garraioak, hizkuntzak... Horrekin batera familia eredu desberdinetara egokituko dugu: batzuk guraso bakarrekoak dira; beste batzuk bi, hiru edo lau seme-alabako bikoteak; familia batzuetan ezin duak daude... Orduan, gaur egungo familia ereduari egokitutako politika behar dugu, ez orain dela 25 urtekoari. Beste aldaketa bat diru sarrerei dagokiena izango da, hots, diru sarrerak progresiboak izango dira. Eta notak ere begiratu dira maila batetik aurrera. Datoren ikasturtean jarriko da martxan sistema berria.

Berdintasuna lantzeko modu bat da hezkuntza, eta hori gogoan izanda aldatuko dugu beken politika.

Herrien Europa aipatu duzu bosgarren erroka modura. Zer ulertu behar duzu horrekin?

Herrien Europa landu egin behar dela. Alde horretatik, nik uste dut txikitatik hasi behar dela hori lantzen. Ez da teoria kontua, nik uste dut herrien Europa bultzatzen baldin badugu eta ho-

Ikastetxe batzuetan proiektu pilotu batzuk jartzeko asmoa dugu, eta hortik ereduren bat atera autonomia bultzatzeko. Momentuz asmoa baino ez da, ez dakigu zertan gauzatuko den, baina datorren urteetan hori landu behar dugu. Bestela, zentroek ez dute bizitzarik izango

rretan sinesten baldin badugu, Euskal Herria hor beste herri bat izango dela, beste herri aske bat. Horretarako, herriak ezagutu egin behar dira eta txikitatik erabili behar da materiala Korsika, Britainia eta gainontzeko herriak zer diren ezagutzeko. Halaber, topaketak bultzatu eta beste hainbat gauza ere egin behar dira, eta denak txikitatik hasita. Zeren, oraingo haur eta gazteek Europar zein herri dauden ez baldin badakite, estatuak soilik ezagutzen baldin badituzte, ez dute Europako herrien alde lanik egingo. Euskal Herria bezala beste hainbat herri daude eta hori hezkuntza sistema osoan landu behar da.

Curriculumaren barruan landuko al litzateke?

Bai, curriculumean sartuko genuke, baina, lehenengo, era esperimentalean. Europaren ikasketa ikaskuntza ibilbide guztiansartuko dugu, eta horren barruan Europako herriak, ez estatuak soilik.

Ikasmateriak direla eta Nafarroan sortu zen afera ikusirik, batzuk ez dira herrien Europa hori lantzearen oso aldeko izango.

Argi dago Euskal Herria existitzen dela, eta ez kultur mailan soilik. 1979ko estatuak ere Euskal Herria subjektu politikotzat hartzen zuen, eta eskubide historikoak zituen. Beraz, subjektu politikoa ere bada, eskubide-

ak dituelako politikoki.

Horretaz beldurrik gabe hitz egin behar dugu, bai liburuetan eta bai mintzatzeko garaian. Errealitate hori existitzen da. Politikoki gaur egun hiru zatitan banatuta dago, baina kulturalki Euskal Herri osoaz hitz egin behar da. Hori gure materialetan beldurrik gabe landu behar dela uste dut.

Azken erronkatzat Eskola Itun berria aipatu duzu. Zer planteatzen da horri dagokionez?

Adostasunez egin beharreko ituna da, eta beste zazpi edo zortzi urterako ituna adostu behar dugu. Aurrekoa 1993an egin zen eta hura aztertu beharko lehendabizi: ea bete den, ea zein hutsune gelditu zaizkion... eta ondoren berria prestatu.

Eskola Itun berriarekin batera, Euskal Eskolaren Legea egitea aurreikusten al da?

Gure konpromisoa Eskola Itun berria egitea da. Agian horren atzetik lege berri bat etor daiteke, baina lehenengo ituna dago, marko orokorra. Euskal hezkuntza sistemaren barruan zenbait sare daude, helburu batzuk, adostutako arau batzuk eta abar. Hori adostea da gure konpromisoa, bai alderdi politikoekin eta bai hezkuntzako partaide guztiekin. Horren ondorioa lege bat izango den ala ez gero ikusiko da. Lehenengo gauza ituna da.



Irakasleen prestakuntzari dagokionez, nola jarraituko du? Orain arteko bideak egongo al dira?

Orain arteko programak egongo dira: Garatu, Irale... Horiek hor jarraituko dute, baina errepasatu egingo ditugu. Legegintzaldi honetarako lerro nagusi batzuk ezarri ditugu: beti kalitatea bultzatuko dugu, Europaren gaia, aniztasuna... Horren inguruan garatuko dugu prestakuntza, helburuen inguruan, helburuen atzetik doalako prestakuntza.

Iraleren inguruan kezka ugari daude.

Nik uste dut Iralek lan ona egin duela euskalduntze bidean eta hezkuntza sistema Iraleren bidez euskaldundu da. Baina orain Iralek egindakoa errepasatu eta birplanteatu egin behar da. Zeren irakasleria euskaldunduta baldin bada ere, kalitate maila igo baitaiteke.

Irakasleen %30 edo euskaldundu gabe gelditu da, eta seguraski hala geldituko da. Horiei zein irtenbide eman behar zaie sistema bera euskalduntzen joateko?

Mementoz ezin dizuet esan zer egingo dugun. Baina orain arte euskaldundu ez den multzo hori euskalduntzea zaila da. Horiekin zer egin daitekeen pentsatu behar da.

Baina horrekin batera, euskaldundu den irakasleriaren euskara maila hobetzera bideratu behar dugu Irale. Oso euskalduntze justua izan da eta horrek izugarritzko garrantzia du hezkuntzan. Euskara maila justu-justuarekin bai ezaguera eta bai euskara transmititzen ari den irakasleak akatsak egiten ditu. Hori ez da haren ardurasoilik, gurea ere bada. Horregatik, gehienbat horretara bultzatu behar dugu Irale.

Orain arte Iralen sare publikoko irakasle gehiago ibili da: %80 edo publikoa zen eta gainontzekoa sare kontzertatukoa. Hemendik aurrera ere proportzio horiekin jarraituko al da?

Nik garbi daukat sistema osoa euskaldundu behar dela, bai publikoa eta



bai kontzertatua. Era berean, bai sare bateko zein besteko irakasle euskaldunen maila hobetu behar da, guztiena.

Euskararen kontuarekin ari garelarik, A, B eta D ereduaren gaineko kezka ere zabaldua dago. Ereduen sistemen moldaketa eskatzen da. Baina zer aldatu behar den erabaki aurretik, ez al da ebaluazio sakon bat egin behar orain artekoa aztertzeko?

Bai, lehenengo aztertu egin behar da eta horretan hastekoak gara. Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakunde berria eratu zen eta orain jarriko da abian. Institutu horren barruan plangintza bat egin behar dugu zer gauza aztertu eta ebaluatu behar diren jakiteko. Plangintza hori urte amaierarako egingo da eta horren berri emango dugu. Ondoren, ebaluazio lanak segituan jarriko ditugu martxan eta hiru-lau hilabete egingo dira. Horrela, dato-

Guk argi ikusten dugu erkidego bezala gure hezkuntza gure erara antolatzeko eskubide osoa daukagula. Ez daukagu onartu beharrik ados ez gauden ezer. Alde horretatik, Madrildik datozen inposaketak ez ditugu onartuko

ren ikasturterako ondorioak aterata egongo dira.

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen plangintzan aztergai izango diren gaiak zein izango diren aurrera al zeniezaguke?

Bai, hiru gai izango dira. Bata euskararena, eta horren barruan ereduaren sistema eta irakasleen euskara maila. Ereduak nahikoa urte daramatzate martxan eta eredu bakoitzak nola funtzionatzen duen jakin behar da. Hortaz, A, B eta D ereduak aztertuko ditugu eta ereduka zein euskara maila dagoen ikusiko dugu. Haatik, ereduak ikasleei zein kompetentzia maila ematen dien soilik ez da aztertuko, baita irakasleek zein euskara maila duten ere.

Bigarren aztergaia 14-16 urte bitarteko ikasleei eta irakasleei zergertatzen zaien ikustea izango da. Adin zaila da, bai ikasleentzat eta baita irakasleentzat ere, eta ongi aztertu behar da; zergertatzen den, nola konpontzen ari diren...

Hirugarren aztergaia eskola porrota da. Ondo aztertu behar da zer ulertzen dugun eskola porrotarekin, horren inguruko elementuak, non dauzkagun zuloak, zergatik egiten duten ikasleek porrot...

Ikastetxeen autonomiaren gaia

ere pil-pileandago. Zein da Hezkuntza Sailaren jarrera gai horretan?

Nik uste dut ikastetxeak autonomia behar duela, hau da, ez du kanpotik bideratutako zerbaitekin behar. Alde horretatik, ikastetxeko zuzendaritza taldea profesionalizatu nahi dugu, horri eman nahi diogu lehentasuna. Zergatik? Ikastetxearen autonomiaren barruan euskarri bat izan daitekeelako. Memento honetan inork ez du zuzendari izan nahi, ez duelako ezer irabazten. Hori dela-eta, lanpostu hori duena bultzatu, lagundu egin nahi dugu. Eta horrekin batera, zentroari berari ere autonomia gehiago eman. Denak ez du izan behar kanpotik zuzendutakoa. Agian errazagoa izango da kanpotik zuzentzea, baina pasibotasuna bultzatzen da.

Ikastetxe batzuetan proiektu pilotu batzuk jartzeko asmoa dugu, eta hortik ereduaren bat atera autonomia bultzatzeko. Mementoz asmoa baino ez da, ez dakigu zertan gauzatuko den, baina datozen urteetan hori landu behar dugu. Bestela, zentroek ez dute bizitzarik izango.

Ikastetxearen autonomia baldintzatzen duen faktore garrantzitsu bat badago: langileen mugikortasuna.

Bai, hala da. Horrek asko baldin-





tzatzen du, baina oso zaila da aldatzea. Beti izango da zentralizatutako plagin-tza bat, baina hala ere, nik uste dut badaudela landu daitezkeen gaiak.

Autonomiaren gaia landuko dugu legegintzaldi honetan, eta garaia iristen den mementoan horretaz hausnartzen ari diren guztiekin kontatuko dugu.

Hainbeste espero den Lan Eskaintza Publikoa noizko izango da?

Udarako izango da. 1.500 lanpostu aterako ditugu oposaketarako. Eta horrez gain, ordezkapen zerrendak zein sistemaren arabera eratu eta kudeatuko diren adostuko dugu sindikatuekin.

Bukatzeko, zein mezu emango zenieke irakasleei?

Alde batetik, konturatzen naizela zenbaterainoko garrantzia duen beraien lanak. Beraiek ere ondo dakite. Gaurko haurrak eta gazteak etorkizunerako prestatzen ari dira, eta horrek berebiziko garrantzia du. Nik uste dut garrantzi handiko lana dela.

Horrez gain, kontziente naiz lan zaila daukatela. Eguneroko lana egiteaz gain, etengabe prestatzen aritu behar dute.

Beraz, animatu egin nahi ditut garrantzi handiko lana dela konturatzen naizelako, baina animoa behar duena. Nik neure buruari ere gauza bera esaten diot. Ez da erronka erraza, egunero-egunero aritu behar dute, eta beraien eskuetan dago etorkizuneko gizartea. Ez dira ezagutzak soilik transmititzen ari, balioak eta beste gauza asko ere bai. Horregatik, gure Euskal Herriko etorkizuna gaur egungo irakasleen esku da-

go zati handi batean. Eta horretaz kontziente dira.

Zure eta Hezkuntza Sailaren jarraitzaileak ere garrantzi handia du irakasleentzat eta hezkuntzan ari diren langileentzat. Hau da, jasaten dituzten erasoen aurrean zuen babes eta defentsa izateak esanahi handia izan dezake irakasleentzat. Horretaz kontziente al zara?

Bai, noski. Ni hemen gizarteko zati handi baten ordezkari nago, eta horren araberrako jarrera daukat. Beste jarrera bat edukiko banu gaizki egingo nuke, gure gizartearen gehiengoak ez baitu horrela pentsatzen. Kasu horretan beste bat egongo litzateke Sail honetan; EAren ordezkari PP agian. Baina ez da hala, ni nago, eta ni EAkoa naizelako nago. Hori argi daukat, bai Madrilekiko eta bai edozein herritarrekiko.

Guk argi ikusten dugu erkidego bezala geure hezkuntza geure erara antolatzeke eskubidea osoa daukagula. Ez daukagu onartu beharrik ados ez gauden ezer. Alde horretatik, Madrildik datozen inposaketak ez ditugu onartuko. Planteatzen dituzten zenbait gauzarekin ados baldin badago gure sistema eta gure erkidegoa, onartuko ditugu, betiere etortzen zaigun guztia gure bahetik pasatuz. Baina inposaketarik ez dugu onartuko. Horrelakoetan gure es-



kubidean babestuko gara, gure hezkuntza geure beharren arabera antolatzeke eskubidea daukagulako. Hori argi daukagu, gure hezkuntza geurea da.

Madrilen onartu duten Unibertsitate Legeak, esaterako, Hezkuntza Sailaren barruan bertan ere antolatzeke aukerarik ez digu uzten, Sailaren barruko antolaketan sartzen da, eta ez diogu kasurik egingo. Guk geure erara antolatzeke eskubidea osoa baitaukagu. Oinarritzko lege organikoak etortzen badira, eta gure autonomia eta ikuspuntu guztia aurrez aurre jotzen badituzte, ez daukagu kasurik egin beharrik.



Elliot Turiel

Elliot Turielek ezagupen eta garapen sozio-moralaren teoria psikologikoa aztertu du. Ezagupen eta garapen horren hainbat eremu ikertu ditu eta hezkuntzarako zenbait irizpide plazaratu ditu. Proposatutako eremu moral, sozial eta pribatuaren arteko desberdintasunak finkatu arren, eremu hori koordinazio garapenaren zein hezkuntzaren muin bihurtzen da.

Elliot Turielen hasierako ikerketak garapen eta pentsamendu moralaren inguruan Kohlberg-ek egindako proposamenaren ildotik abiatzen dira. Jakinaenez, Kohlbergen proposamen ikusgarriena garapen moralaren deskribapena izan zen. Haren ustez, garapena printzipio moral eta unibertsalaren eskurapenerako bidean kokatzen da, eta bide horrek hiru etapa zeharkatzen ditu adinarekin eta hazkundearekin batera. Garapen moralaren helmugara (printzipio unibertsalen erabilpena) heltzeko, pentsamendu konbentzionala gainditu beharra dago, hau da, gizarte eta kultura zehatzekin lotura izan dezakeen alderdia alde batera utzi behar da gaztazka eta dilema aurrean. Azken finean, Kohlbergen ustez, hurrek zein helduek beraien mundu sozial guztiak justizia kontzeptuaren inguruan antolatzen dituzte. Beraz, justizia bizitza sozialerako oinarritzko faktore bihurtzen da, eta ondorioz, giza harremanak eta instituzioei buruzko giza-kien pentsamendua justizia kontzeptuaren inguruan egituratzen da.

Santiago Palacios

EHUko Bilboko Irakasle Eskolako irakaslea
Bilakaera eta Hezkuntzaren Psikologia departamentua



Horren ondorioz, hezkuntza sozio-pertsonala justiziaren balio moral hezitza murrizten da, baina proposamen hori globalegitzat edota gehiegikeriatzat jo daiteke. Beraz, giza elkarrekin antolatzeke justiziaren egitura nahikoa dela zalantza jartzea zilegi da. Norabide hori darama Turielek (1983) garapen moralaren ikuspuntu klasikoei (Piaget, Kohlberg) zuzentzen dien kritikak.

Elliot Turielek jatorri judua du eta Kaliforniako juduen komunitatean parte hartzen du. Kohlbergen eskutik eman zion hasiera bere ikerketa lanari, bere maisuaren azalpenak berraztertuz. Azterketa horren helburua nerabezaroan azaltzen diren inkohereziaz ulertzea da. Izan ere, nerabeek ebazpen moralak egiteari uko egiten diote sarritan, nahiz eta nerabeek beraien ebazpen moralak egin. Turielen ustez, gertaera hori ez da pentsamenduen 2. mailako aldi baterako erregresio edo atzerapenaren isla, baizik eta moralitate konbentzionala ukatu arren erlatibismo moral gaintzen duten printzipioetan oinarritutako moralitatea eraikitzeke ezintasunaren isla. Dena dela, nerabeek arau guztiak, moralak zein sozialak, ukatu egiten dituzte, haien ustez arbitrarioak direlako. Beraz, nerabeek gai moral eta konbentzionalak bereizteke lanean jarduten dute. Baina, nerabezaroan hasten al da bereizketa hori? Haur txikiagoak ez al dira bereizketa

egiteko gai? Bi galdera horiei erantzuna emateko Turielek ezagupen sozialaren garapenerako ikuspuntu berri bat plazaratu du. Ikuspuntu berri horren arabera, berezko garapena duten hiru ezagupen eremuak bereizi egin behar dira.

Turielen ustez (Goñi, 1992), moralitatea, justiziaren zentzuan, eremu bat besterik ez da eta bereizi egin behar da eremu konbentzionaletik. Zeren eta eremu konbentzionala antolamendu sozialaren ulermenaren barruan kokatzen baita. Bi eremu horiek garapen sekuentzia ezberdina dute. Eremu bateko gertaera prototipo baten aurrean daudenean, haurrek gertaeraren izaerari dagozkion pentsamoldeak erabiltzen dituzte era egokian. Aldiz, gertaera konplexua edo dimentsio anitzekoa denean, dimentsio moralei lehentasuna ematea zaila bihurtzen zaie. Garapena, beraz, egoera sozial konplexuen aurrean hainbat eremutatik sortutako ebazpenak koordinatzeko gaitasuna zabaltzeko prozesuan datza.

Izan ere, prototipoak diren gertaera moralak epaitu behar dituztenean, haurrak oso era zuzenean arrazoitzen du, eta ez Piagetek heteronomia moralari egotzi zizkion ezaugarriekin (Turiel, 1983). Adibidez, haurrek edozein aginteri obediencia izatea ez dute beti ontzat ematen; arau moralak eta ez-moralak bereizten dituzte; ez dute arau guztiak aldaezinak eta absolutuak direnik pentsatzen; arau haustearen garrantzia eta zigorraren gogortasuna bereizi egiten dituzte; intentzio eta ondorioen artean bereizketa ere egiten dute, nahiz eta biak koordinatzeko gaitasunik ez izan.

Beraz, Turielek eskaintzen duen ikuspuntua Piaget eta Kohlbergengandik oinarritzko alderdietan urruntzen da. Esate baterako, garapen moralak, Turielen ustez, ez da maila ez-moraletik beste maila moral batera igarotzen denean gertatzen, baizik eta



errealitate sozialaren hainbat dimentsio eta alderdi antzeman eta koordinatzen direnean.

Turielen ustez, ikertzaile askok porrot egin dute ebazpen moralak neurtzerakoan, horretarako aurkeztu diren gertaerak ez baitira moralak. Besteak beste, Piagetek pentsamendu moralak aztertzeke egin zituen ikerketak arau konbentzionaletan (kaniken jokoaren arauak) oinarritu zituen. Beraz, lehenengo ondorioa, Turielen ikuspuntuan oinarriturik, gertaeraren izaera kontzeptuala kontuan hartzea da, bai ebaluatzeko lanetan, bai hezkuntza jardueran.

Laburbilduz, ebazpen sozial ezberdinen existentziaren aurrean hiru jarrera aurkitzen ditugu. Piageten ustez orientazio heteronomia eta autonomia elkarrekin gertatzen dira, eta garapena baten edo bestearen lehentasunaren kontua da. Kohlbergengandik oinarritzko alderdietan urruntzen da. Esate baterako, garapen moralak, Turielen ustez, ez da maila ez-moraletik beste maila moral batera igarotzen denean gertatzen, baizik eta

tu duen hausnarketa egiteko mailaren arabera aztertuko du. Gertaera konplexua bada, berriz, heldutasuna eremuetako ebazpenak koordinatzeko gaitasun progresiboan islatzen da. Turielen ustez, ez dugu mundu sozialari buruzko teoria orokortzailerik eraikitzen, baizik eta teoria partzialak;

Turielek eskaintzen duen ikuspuntua Piaget eta Kohlbergengandik oinarritzko alderdietan urruntzen da. Hezkuntzaren esku-hartzea ezin da hezkuntza moralaren esparrura mugatu.

Turielen ideia nagusia hauxe da: ezagupen sozio-morala eremu moral, sozial eta pertsonalean antolatzen da, eta eremu bakoitza maila ebolutiboan eta kontzeptuarean ezberdina da.

hain zuzen ere, ebazpenaren hiru eremuei dagozkienak: morala, gizartekoa eta pertsonala (Turiel, 1983; Goñi, 1992).

Teoria klasikoek (Piaget, Kohlberg) neurri handi batean moralak ez diren ebazpenak alde batera uzten dituzte. Jakina, den-dena moralitatearen barruan kokatzen denean erredukzionismo larri batean erortzeko arriskuan gaude. Tesi klasikoek gizakiaren bizitza moralizatu egiten dute, eta azpitik, existentziaren ikuskera trazendentalista izaten dute. Eskolastikaren moralitasunak duen printzipioak dioen bezala, ez dago giza ekintza axolagaberik, denak onak edo txarrak dira. Horren ondorioz, gizakiari uko egin zaio bere kabuz, nahiaren edota zaletasunaren arabera, erabakitze esparrua.

Idea nagusiak

Esan dugunez, Turielen ideia nagusia hauxe da: ezagupen sozio-morala eremu moral, soziala edo kon-

bentzional eta pertsonalean antolatzen da, eta eremu bakoitza maila ebolutiboan eta kontzeptuarean ezberdina da. Ebolutiboki, eremu horiek sortzen dira pentsamenduaren objektuak diren errealitateak baliatzeko, eraikitze eta ulertzeko era ezberdinak identifikatu ahal direnean. Hau da, mundu soziala anitza da, eta kualitatiboki ezberdinak diren elkarreagin sozialei aurre egin behar die gizakiak beste pertsonekin eta gertaerekin alde aurretik izandako esperientzian oinarriturik.

Metodologiari dagokionez, eremu horiek identifikatzeko Turielek arrazamenduaren bi elementu eskaintzen ditu: ebazpenaren irizpideak eta justifikazioaren kategoriak. Lehendabizikoak pentsamenduaren alderdi formalean oinarritzen dira, irizpideak ezagupen eremu baten parametroen definizioa eta identifikazio jardueran erabiltzen diren ebazpena dira-eta.

Bigarrenoak, justifikazioaren kategoriak, eremu baten barruan erabiltzen diren arrazamenduak dira. Justifikazio horiek eremu bakoitzaren barruan pentsamenduaren sistema egitaratuak osatzen dituzte, eta adinarekin batera (Smetana, 1981) aldakuntzak suertatzen dira, ez ebazpenaren irizpideekin bezala (Tisak eta Turiel, 1988). Hau da, nahiz eta justifikazioak eremu berekoak izan, kualitatiboki ezberdinak diren beste batzuk izatera hel daitezke.

Turielen ustez, eremu morala (justizia eta zilegitasunaren kontzeptu moralak) baliabideen banaketa, arduraren, konfiantza eta besteenganako onura edo kaltea azaltzen dituzten elkarreagin sozialei erakitzen da. Alderdi morala jardueraren edo elkarreaginaren beraren faktoreetan oinarritzen da, eskubideen urraketan, besteak beste sortutako kaltean edo onuran. Hau da, besteekiko nola jokatu behar den jakiteari berari dagozkion ezaugarrietan.

Ezagupen moralaren eremua beharrezkotasunarekin, pertsonalitate ezarekin, aldaezintasunarekin eta arauen orokortze ebazpenaren irizpideekin identifikatzen da. Izan ere, agindu moralak betebeharrekoak dira; beraz, norberaren ezaugarrietatik urrun daude, oinarri arbitrarioak dituzten irizpideen truke aldaezinak dira, eta egoera eta kontestu sozialean zehar zabaltzeko gai izan behar dira.

Eremu sozio-kontentzionala, beraz, sistema soziala mantentzeko eta pertsonen arteko harremanak koordinatzeko erabiltzen diren jokatzeko uniformetasunen inguruan kokatzen da. Egoera sozialean dauden erregulartasunen jatorria antzemate jardueran bilatu behar da, adibidez; jantzeko erak, rol sexualak edo jokaera sozialearen moduak. Izan ere, gertaera sozio-kontentzionalatik ez da betebeharreko agindurik sortzen, baizik eta sistema sozialean barruko harremanak koordinatzeko akordioz lortutako uniformetasunak. Beraz, arau sozio-kontentzionalak arbitrarioak dira, kontestu sozial zehatzen arabera, eta funtzio bera bete ahal duten beste jarduerak eta erabakiak posible direla onartzen da.

Ezagupen pertsonalaren eremua ondorio moralik ez duten eta arautze sozialei kanpo geratzen diren gertaerek eta jarduerak osatzen dute. Are zehatzago, eremu pertsonalak zehatztasunaren eta pribatutasunaren alderdiak biltzen ditu bere baitan. Zehatztasunaren esparruan norberari kalte egiten dionaren ekiditze-ebazpenak agertzen dira, eta pribatutasunak aske erabakitze norberaren esparruaren isla izan nahi du. Beraz, gertaeren izaera indibiduala azpimarratu egiten da ezagupen eremu honetan.

Heziketa esku-hartzeak

Hezikuntza sozio-moralari dagokionez, esku-hartzearen helburua zenbait irizpide eraikitzen laguntzea

da. Beste modu batean esanda, jokae-ra sozio-pertsonalaren irizpideak (moralak, konbentzionalak, zuhurtasuna, sozio-antolakuntza, pribatutasuna...) koordinatzen eta bereizten lagundu behar du (Goñi, 1992).

Beraz, hezkuntzaren esku-hartzea ezin da hezkuntza moralaren esparrura mugatu. Hau da, ezin dira era berean irakatsi norberaren kalteari edo onurari dagozkion gertaerak, besteen onura edo eskubideei dagozkienak eta norberaren aukera askeari eta adostasun sozialari dagozkionak.

Ikuspuntu horretatik jartzen diren jarraibideak hauek izan dira:

1. Lehen aipatu dugunez, ebazpen sozio-pertsonalaren eta moralaren oinarritzko irizpide batzuk, ez asko, erai-ki eta koordinatzen lagundu behar da.

2. Sustatu nahi den jokaera sozio-pertsonalaren irizpideari dagozkion gaiak, kontuak eta edukiak aukeratu behar dira. Hori dela eta, gertaera sozio-pertsonalen alde aurretiko analisia behar-beharrezkoa da.

3. Oinarritzko irizpide sozio-pertsonal bakoitza eraikitzeko, oso baliagarria da eremu baten gertaera prototipikoak aukeratzea.

4. Ebazpenaren irizpide bera gai ezberdinekin landu ahal da. Amaigabeko balio zerrendetan galtzea ekidin behar da.

5. Eduki sozio-pertsonal zehatza lantzerakoan jokaeraren irizpide bat baino gehiago sustatzen ari dira, seguraski. Azken finean, arrazonamenduen egiturari arreta jartzea exijitzen du, eta ez hainbeste edukiei.

6. Gertaera konplexuek (bizitza sozialeko gehienak) sorrarazten dituzten ebazpen mota ezberdinak koordinatzen lagundu behar da, zeren eta irakurketa bat baino gehiago egin baitaiteke. Gertaera horien konplexutasuna dela-eta, izan daitezkeen erantzukizunak kontuan hartu behar dira; nola koordinatu edo zeini eman lehentasuna.

Bibliografia

Turielen lanak:

- TURIEL, E. (1984). *El desarrollo del conocimiento social. Moralidad y convención*. Madril. Debate.

- TURIEL, E. (1989). Dominios y categorías en el desarrollo cognitivo y social. E. Turiel, I. Enesco y J. Linaza (Eds.)-en, *El mundo social en la mente del niño*. (37-67. orr.). Madril. Alianza.

- TURIEL, E. eta HILDEBRANDT, C.; WAINRYB, C. (1991). Judging social issues: difficulties, inconsistencies and consistencies. *Monographs of the Society for Research in Child Development*, 2, 140-143 orr..

- TURIEL, E. (1998). Notes from the underground: Culture, conflict, and subversion. J. Langer, M. Killen, (Eds.)-en; *Piaget, evolution, and development. The Jean Piaget symposium series*. (271-296 orr.). New Jersey. Lawrence Erlbaum Associates.

Turieli buruzko lanak gaztelaniaz:

- GOÑI, A. (1992). *La educación social. Un reto para la escuela*. Barcelona. Graó.

- DIAZ-AGUADO, M. J. eta MEDRANO, C. (1995). *Educación y razonamiento moral*. Bilbao. Mensajero.

- GOÑI, A. (1996). *Psicología de la educación sociopersonal*. Madril. Fundamentos.

- PALACIOS, S. (1996). La insu-misión. Comprensión sociomoral de sucesos sociales complejos. *Revista de Psicodidáctica*, 1, 103-121.

- GOÑI, A. (2000). *Adolescencia y discusiones familiares*. Madril. EOS.

- GOÑI, A. (2000). *Psicología del individualismo*. Madril. EOS.

Turieli buruzko lanak ingelesez:

- SMETANA, J. (1982). *Concepts of self and morality. Women's reasoning about abortion*. New York. Praeger.

- NUCCI, L. P. eta WEBER E. (1991). The domain approach to values education: From theory to practice. W. M. Kurtines, J.L. Gewirtz (Eds.)-en, *Handbook of moral behavior and development. Vol. 3: Application*. (251-266 orr.) New Jersey. Lawrence Erlbaum Associates.

- HART, D. eta KILLEN, M. (1996). *Morality in everyday life. Developmental perspectives*. Cambridge: University Press.

- SALTZSTEIN H. D. (1991). Why are nonprototypical events so difficult, and what are the implications for social-developmental psychology?. *Monographs of the Society for Research in Child Development*, 2, 104-116.

- SMETANA, J. eta BITZ, B. (1996). Adolescents' conceptions of teachers' authority and their relations to rule violations in school. *Child Development*, 3, 1153-1172.

- HHELWIG, C. C. (1997). The role of agent and social context in judgments of freedom of speech and religion. *Child-Development*, 3, 484-495.

- GLASSMAN, M. eta ZAN, B. (1995). Moral activity and domain theory: An alternative interpretation of research with young children. *Developmental Review*, 15, 432-457.

- TISAK, M. eta TURIEL, E. (1988). Variation in seriousness of transgression and children's moral and conventional concepts. *Developmental Psychology*, 24, 352-357.

- WAINRYB, C. eta TURIEL E. (1993). Conceptual and informational features in moral decision making. *Educational Psychologist*, 3, 205-218.



Jon Koldobika MENDIZABAL

Zarauzko Salvatore Mitxelena ikastolako 6 urteko haurrek astean behin Mendi artistaren bisita izatendute. Margolari honek marrazkiak egiten laguntzeaz gain, sormenari leihoa irekitzera bultzatzen ditu. Artistak eta haurren artean sortzen den erlazioa berezia dela medio, bide berriak irekitzen dira.

Orain dela bi urte hasi zen 73 urte dituen Jon Koldobika Mendizabal Zarauzko ikastolara joaten. Ez ikasle bezala, eta ezta irakasle bezala lan egitera ere, artista bezala bere ezagutzak zabaltzera baizik. Ezohiko irakaslea dela esan daiteke agian, baina artista dela esatea egokiagoa da. Zergatik? Laster ikusi duzue.

Artistak zarauztar hau askotan aritzen da Zarauzko hondartzan margotzen. Era berean, ikastolako haurrak sarritan joan ohi dira hon-

Mendi artistaren eskutik

dartza aldera giro ona egiten duenean. Bada, egun batean, elkarrekin topo egin zuten eta irakasleak artista hark ikasleei gauza asko erakutsi ziezakiekeela konturatu ziren. Horrela, haurrei zerbait irakastera animatuko al zen galdetu zioten, eta baita egin ere.

Geroztik astean behin joaten da Mendi ikastolara eta haurrak margotzen jartzen ditu. *“Beraiei ezaguna egiten zaien gai bat aukeratzeko dugu, eta horri buruz pixka bat hitz egin ondoren, marraztu egiten dute. Adibidez, Orioko balearen 100. urteurreneko ospakizunak egin zirenean, bospasei ikaslehan izan ziren eta balea marraztea erabaki genuen”* azaltzen digu Mendik. *“Ez diet eskatzen marrazkia ondo edo perfektu egitea, hori ez da garrantzitsua, baizik eta sormena lantzea, ez dadila sormena landu gabe gelditu”*. Horretarako, haurrekin jolasean egiten du, marraztu, gauzak komentatu... Baita erakusketak, argazkiak eta filmak ikusi ere. Ikusitakoa gelan komentatzen dute: zer ikusi duten, zer iruditu zaien politena... Eta hor pizten zaie kuriositatea eta sormena. Mendiren ustez, *“hori da aberatzena, kuriositatea edukitzea eta bizitzari buruz interesatzea”*. Horri buruzko marrazkia egiten dute ondoren, eta Mendik banaka-banaka

bakoitzarekin komentatzen du. *“Aurrera jarraitzeko animatzen ditut: koloreekin jolasteko, detaileak marrazteko... Zer egin duten konturazten saiatzen naiz eta hortik aurrera egin dezaketenaz ohartarazten ere bai. Azken finean, ateak irekitzen saiatzen naiz. Izan ere, gaurko bizimoduak atak itxi egiten ditu, eta ireki egin behar direla iruditzen zait. Horregatik, hori txikitatik erakutsi behar zaie”*. Ikuspegi horretatik, Mendik dio bi gauza erakutsi behar zaizkela: jatekoa lortzen eta zaletasunak lantzen. *“Adin horretan nabaritzen da nork atera dezakeen bizimodua margotuz. Batzuek trebezia handia dute. Gertatzen dena da lantzen ez badute moztu egiten dela, eta horretan gelditzen dela. Lanean hasten badira, kirola egiten badute eta abar, margotzeko denborarik gabe gelditzen dira”*.



Hori bere inguruan argi ikusi du Mendik berak. *“Nirekin batera eskolan zebiltzan batzuek nik baino hobeto egiten zituzten marrazkiak, eta orain ez dute ezer egiten. Ez zuten marrazten jarraitu eta ez zuten gehiago garatu trebezia hura”*. Beste garai batzuk ziren, eta horrek ere eragina zuen, noski. *“Garai hartan helbururik garrantzitsuena lan duin batekin bizimodu aurrera ateratzea zen. Gauregun, ordea, bizitza maila altuagoa den honetan, denbora dugun honetan, aukera daukagun honetan, eskolak dauzkagun honetan, zale-tasunak ere landu egin behar dira, leku egin behar zaie”*.


Orain arteko bizimoduan marrazteari, arteari eta, oro har, kulturari ez zaio kirolari edo beste hainbat gauzari adinako garrantzirik eman, Mendiren ustez. *“Hemengo etxeetan ez da liburutegirik egon izan. Jan inon baino hobeto egin izan da, eta kirola eta lana ere garrantzitsuak izan dira. Haatik, kulturak ez du presentzia handirik eduki. Hemengo jendeak kanpora bidaiatzen duenean ez ditu museoak bisitatzen, dendak baizik. Zergatik? Kultura falta zaielako, oinarria falta zaielako, eta hori da haurrei eman behar zaiena. Gaur egun, telebistak, eskolak eta komunikabideek kultura hori zabaltzen edo ezagutarazten lagun dezaketela iruditzen zait”*.

Haurrek ez dute Mendirekin soilik marrazten, bera ez dagoenean ere jarduten dira. Baina Mendiren ekarpenak berritasuna ematen die. Egunero joango balitz aspertu egingo liratekeela dio, eta hori ere zaindu egin behar dela.

Irakasleek beren jarduera eta Mendirena ez dute berdin ikusten. Mendirekin artistaren begirada jasotzen dutela diote, eta horrek garrantzia duela. *“Zeri ematen dion*

garrantzia ikusten dute, nola pausatzen dituen begiradak gauzetan... Eta haurrek hori ikusi egiten dute, jaso egiten dute. Irakasleok hori normalean galduta daukagu, nahikoa daukagu haurrak isilik edukitzearekin eta ordena zaintzearekin. Baina artista beste gauza bat da. Etortzen da, egiten du marrazki bat, eta haurrak pentsatzen du “horrek hori egin badu, nik ere egin dezaket”. Egindakoa Mendiri erakusten diote eta hark gelditu eta begiratu egiten die marrazkiei. Haurrekin egiten dituen komentarioak ere garrantzitsuak dira”.

Artista gela barruan egoteak kultura eta arterako bidea irekitzen du. Jorge Oteizak hori dio *Un modelo de hombre para el niño en cada país* artikuluan, artista eskolan egoten dela, artistak haurrekin egon behar duela. Artistak artea egiteko gizartetik jasotzen ditu osagaiak, eta horrekin egiten ditu arte-lanak. Gero, ordea, jaso duen hori berriz gizarteari itzuli behar dio. Eta nola egiten du hori? Eskolaren birtartez. Horregatik esaten du Oteizak artistak haurrekin egon behar duela. Zarauzko Salvatore Mitxelena ikastolan Mendi artistarekin egoteko zortea daukate hau-





Gazteentzako euskarazko komikiak

Aurten gazteei zuzendutako euskarazko lau komiki liburu argitaratu ditu Jean François Sauré argitaratzaileak. Genero honetan eta gazteentzat dagoen hutsuneari erantzuteko asmoz ekin dio egitasmo horri, eta urtero kalitatezko lau liburu argitaratuko ditu.

Orain dela 10 urte komikigintzak Euskal Herrian nahikoa indar baldin bazuen ere, azken urteetan beheranzko joera hartu du. Kriseilu, Erein, Antxeta eta beste zenbait argitaletxe ziren garai hartan komikiak argitaratzen zizutenak, egile euskaldunenak zein atzeritarrenak. Baina poliki-poliki produkzioa gutxituz joan zen. Gaur egun Ipurbeltz-ek jarraitzen du, baina haurrentzako komikia da. Gazteei zuzendutako komikirik ez dago. Horretaz jabetu zen Jean François Sauré argitaratzailea merkatu azterketa bat egin ondoren. *“Euskaraz zein liburu edo literatura mota argitaratzen den ikusteko egin genuen merkatu azterketa”* dio bere izen bera daraman argitaletxeko arduradunak. *“Komikigintzan hutsune nabarmena zegoela ondorioztatu genuen, batez ere gazteentzako komikigintzan. Ez zitzaigun interesatzen merkatuan zeuden komikiei konpetentzia egitea, falta zena egitea baizik; 12-16 urte bitarteko gazteei zuzendutako komikia, alegia”.*



Egitasmoaren emaitzak aurten ikusi dira; lau komiki liburu argitaratu ditu argitaratzaile honek. Eta aurrerantzean ere bide bera jarraituko du, hots, urtean lau liburu. *“Gure asmoa ez da liburu asko kaleratzea, gutxi eta onak baizik. Autore onak eta kalitatea interesatzen zaizkigu”* dio Saurék. Hortaz, udaberriarrekin batera urtero lehen biliburuak emango dituzte argitara, eta hurrengo biak, udazkenean.

Jean François Sauré argitaratzailea

Egitasmo honen arima Jean François Sauré dela esan daiteke. Haren ideia izan zen gazteentzako komiki liburuak argitaratzea. Dena dela, berekin batera komikigintza ezagutzen duten hainbat kolaboratzaile ditu, besteak beste, Pedro Diez de Ulzurrun, Bego Montorio eta Koldo Biguri.

Egile euskaldunen zein nazioarteko lanak argitaratzeko asmoa dutela

azaldu digu Saurék. *“Betiere kalitatea eta 12-16 urteko gazteak izango direlarik aintzat hartuko ditugun elementurik garrantzitsuenak”.*

Publiko horren ezaugarriak eta alderdi pedagogiko-hezitzailea batu egingen dituzte, eta hori hainbat elementutan nabaritzen da: gidoiak, irudiak, materiala... *“Adibidez, gazteen artean, eta gainontzekoen artean ere, komikiari buruzko ikuspegi bat badago, eta hortik ez dugula gehiegi alden behar beste dut. Horrekinesan nahi dudana da irudiak zaindu egin behar direla”* dio Saurék. *“Gainera, ikuspegi horretatik komikiak eta filmak antza handia dute. Komikiaren gidoiak egiteko erabiltzen diren elementuak dira filmean erabiltzen direnak: plano panoramikoa, ertaina, amerikarra, lehen plano, detailezko plano... Komikia film bat egiteko oinarri bezala har daiteke. Azken finean, komikiko plano mugimendua ematea da film bat egitea. Zazpigarren arterako sarre-ra da”.* Hainbat zinegile komikigintzan zaletuak dira eta hori ere bi generoen arteko erlazioaren isla da.

Horrez gain, testuak ere gazteen mailakoa izan behar du, hau da, publiko horri egokitu landu behar da. *“Askotan entzuten dugu “hau haurrentzat da”, eta gazteentzako komiki hauekin ez da hori gertatzen, adin horretara egokitutako zerbait propioa dira, eta bereizketa hori garrantzitsua da. 12 urteko muga jartzen dugu gutxieneko adin bezala”.* Halaber, zen-

bait eduki eta balio lantzeko ere erabilgarriak dira, historikoki, gaiaren aldetik eta abar, informazio egokia ematen dutelako.

Argi dago genero bezala aniztasun handia duela komikiak, askotan hala uste ez badugu ere. Komiki historikoak, erromantikoak, gai sozialekoak, abenturazkoak, drama, antzerkia eta abar daude. Aniztasun horren lekuko dira esku artean ditugun lau produkzioak.

Esku arteko lau komikiak

Aurten argitaratutako lau komiki liburuak desberdinak dira eduki, formatu, estilo, irudi eta egileen aldetik. Lehenengo *Gazte kontuak* izenekoa da. Carlos Trillo idazle argentinarrak eta Laura Scarpa ilustratzaile veneziarrak egindako liburua da. Ez dauka helburu pedagogikorik, baina, izenburuak dioten bezala, gazteei interesatzen zaizkien gaiak lantzen ditu.

Bigarrena *Txerokiren txorakeriak* da. Hori Iñigo Sarasola komikigile beasaindarrarena da. Geu Gasteiz herri aldizkarian agertzen dira horren komikiak, eta liburu honetan 64 istorio inguru errekopilatu dira. Ez da nobela edo istorio bakar bat, eta alde horretatik lan interesgarria izateaz gain, material ona da.

Hirugarrenaren izenburua *Jeremiah fusilaren pean* da. Hermann egile belgikarraren liburu hori bilduma batekoa da. Dena dela, bildumako liburu guztietan protagonista berak agertu arren, istorio bakoitza independentea da. Guztiak ere abenturazkoak dira, eta urte eta erdi barru Jeremiah-ren film bat egingo dute.

Azkenik, laugarrena *Kapak eta Letaginak* da. Liburu hori kartoi formatukoa da, eta hurrengoetan ere horrela mantenduko dute, liburutegietarako eta egokia dela pentsatzen dutelako. Liburu honek helburu hezitzailea du. Urrezko mendean kokatuko informazio ugari biltzen du. Esate baterako, orduko giroa, janzkera, ohiturak, aipamenak, bertsoak...

Lau liburu horietako bi Jean François Sauré argitaratzailearenak dira, baina beste biak beste hiru argitale-



txerekin batera kaleratutakoak. Formula mugaturik ez dagoela dio Saurék, edizioa konpartitua edo berea bakarrik izan daitekeela. *“Nazioarteko lau argitaletxerekin harremana dut, eta batzuetan elkarrekin egiten ditugu lanak”* diosku Saurék. *“Argitaletxe italiar bat, frantses bat eta alemaniar bat dira. Zein autore edo produktoreen aldeko apustua egingo dugun erabakitzen dugu. Ondoren, denon artean diru poltsa bat osatzen dugu eta denon artean argitaratzen dugu”*. Argitaratzeko herrialde neutro bat aurkitzea zela onena pentsatu zuten, eta prezio eskaintza aztertu ondoren Eslovenia aukeratu zuten. Argitalpen konpartituetan liburuaren eskubideak ere konpartitu egiten dituzte.

Komiki liburu horiek ikastetxei eta liburutegiei harpidetza bitartez eskuratzeko aukera eskainiko zaie. Saurék dioenez, *“12-16 urteko gazteengana iritsi nahi badugu, aurretik hezitzailei ezagutarazi behar diegu daukagun materiala eta egokia dela konbentzitu behar ditugu, hots, historiako oinarrizko elementuak betetzen dituztela, literatura maila dutela eta abar”*.

Hurrengo urteko produkzioari begira jarrita, bi lan buruzko informazioa aurreratu digu Saurék. Bat Bizkaiko kostari buruzkoa izango da. Joseba Lugares Aresti gidoilari bizkaitarrari eta Eva Garcés irudigile gipuzkoarrari eskatu die lana. Bestea Sherlock Holmesen moldaketa bat izango da, baina tradizionala ez den bertsio bat. Adibidez, Sherlock Holmesen jarraitzaile Waltson doktoreak Sherlock Holmesek baino

gutun gehiago jasoko ditu jarraitzaileengandik, emakumeak paper aktiboa goa izango du, umore gehiago egongo da eta literatur maila altua edukiko du. Saurék aitortzen duenez, *“ulertu ahal izateko, ondo sartu beharko da komikian. Nik neronek lehen orrialdeak irakurri nituenean, zaila zela pentsatzen nuen. Lehen 30 orrialdeak irakurri ondoren konturatu nintzen egokia zela eta ildo narratiboa ondo egituratuta zeukala”*. Idazleak transmititu nahi duena ulertzeko irakurleari umorea hautematen jakitea eskatzen dion liburua izango dela dio. Erredakzio maila oso konplexuko eta espresio oso landuko komikia izango da, beraz.

Komikigintza nazioartean

Euskal Herrian komikiak indar askorik ez badu ere, ezin esan liteke gauza bera beste herrialde batzuetatik. Euskal Herrian komiki kulturarik ez dagoen bezala, beste zenbait lekutan badago. European produkzio indartsua duten bi herrialde daude: Frantzia eta Belgika. Txikitatik hasten dira irakurtzen, gaztetan jarraitu egiten dute eta helduak direnean ere bai. Edozein eleberriren aurretik best seller-ak izatera iristen dira. Halaber, egunkarietan ere presentzia esanguratsua dute: koloretako orrialde osoa. Komiki aldizkari anitz daude, museoak eta erakusketak ere bai, komikien eta komiki egileen inguruko jaialdiak antolatzen dira, komiki eskolak daude, komiketako pertsonaiekin publizitate iragarkiak egiten dira... Azken finean, komikia oso barneratuta dago kulturaren.



Axa mixa zilarra agenda-egutegi berria

Urtarrilaren lera arte itxaron beharrik ez dugu izango egutegi berri bat mahai gainean jartzeko. Axa mixa zilarra agenda-egutegia neguaren hasierarekin batera estreinatu ahal izango dugu.

Elkarlanean argialetxeak kaleratu duen produktu berritzaile eta erakargarria da **Axa mixa zilarra agenda-egutegia**. Izenak berak adierazten duen bezala, izaera bikoitza du: alde batetik, agenda bezala erabil daiteke esku-liburuxka edo oharrak jasotzeko koaderno gisa, eta bestetik, mahai gainean zutik jar daiteke egutegi moduan.

J. M. Olaizola "Txiliku" ren *Axa mixa zilarra* liburuan oinarriturik dago, egile berak atondu duelarik. Marrazkiak eta diseinua, ostera, Elena Odriozolarenak dira.

Agenda-liburua lau liburuxka edo koadernok osatzen dute eta bakoitza urtaro bati dagokio. Horrela, lehenengo koaderno **neguari** dagokiona da eta 2001eko abenduaren 21ean hasi eta 2002ko martxoaren 20an amaitzen da. Bigarren koaderno, **udaberria**, martxoaren 21etik ekainaren 20ra artekoa da. Hirugarrena **udakoa** da, ekainaren 21etik irailaren 20ra, eta azkenekoa, **udazkena**, irailaren 21etik abenduaren 31ra arte. Udazkena abenduaren 21ean bukatu arren, azken liburuxka abenduaren 31ra arte luzatzen da. Beraz, de-

nera, 376 egun ditu, 2001eko 11 egun eta 2002ko egun guztiak.

Egun bakoitzari orri bat dagokio almanaka edo egutegi gehienetan bezala. Orriak bakoitzaren aurrealdean egunari buruzko informazioa, esaera zahar bat eta oharrak idazteko lekua dago. Atzealdean, berriz, esaera zaharri buruzko argibidea eta jolaserako baliagarri den igarkizuna, ipuina, jolasa, aho-korapiloa edo dena delakoa. Guztira 200 igarkizunetik gora, ipuinetik bi hamarreko, bost dozena kanta, hogeitaz hitz-joko, dozenatxo luze bat aho-korapilo eta jolas eta bitxikeriatatik eskukada bat edo beste ditu. 376 esaera zaharrek, aldiz, urtaroei eta eguraldiari buruzkoak dira.

Horiek guztiak jolas egiteko aukera ematen dute, eta horixe da, gainera, agenda-egutegi honen helburu nagusia:

euskaraz jolas egiteko baliagarria izatea. Igarkizun eta galderek, esaterako, jolas egiteko aukera ematen dute. Izan ere, egun bateko igarkizunaren edo galderaren erantzuna hurrengo eguneko orrian agertzen da. Beraz, 24 ordu daude igarkizunaren erantzuna asmatzeko edo galderari erantzun egokia emateko. Igarkizunaz gain, esaera zaharrek egunero zertxobait irakurtzeko aukera eskaintzen dute, bai orrialde aurrealdean (esaera) eta baita atzealdean (esaera horren azalpena). Tartekamarteka ipuin laburtxoak, jolaserako kantuak, abesti zaharrek... ere badaude. Azken finean, egunero pixka bat irakurri eta egunero pixka bat jolasteko egutegia da, eta bide batez, ahozko literatura dastatzeko. 2.500 pezeta balio duen Axa mixa zilarra agenda-egutegiak eskaintzen du aukera hori guztia.



Bide eginean jarraitzen

dugu zuen ekarpenekin

eta parte-hartze

handiagoarekin aberastu

nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia

den heinean, interesa

duen edonoren parte-

hartzea gustu handiz

hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxo

euskal hezkuntzaren

aldeko ekimen honetan.



Berriak

abendua

Argitalpenak



Drogak larrugorrian Askagintza

Droga menpekotasunari aurre egiteko sortu zen Askagintza herri erakundea 1970ean. Orduetik hona hainbat ekimen burutu ditu eta hau beste bat da. Liburu honetan drogei buruzko informazioa biltzen da, eta horixe ezagutarazi nahi dute. Jendea informatuta egotea ezinbestekoa baita droga-menpekotasun fenomenoari aurre egiteko •



Emakumeak Euskal Herrian (Erresistentziak eta hausturak)

Teresa del Valle
Gaiak

Euskal Herriko emakumeak eguneroko ekintzetan lortzen ari diren espazio propioak aztertzen dira liburu honetan. Ibilbide horretan emakumeek finkatutako esparru konkretuak aipatu eta ikertu ere egiten dira: emakumeen asoziazionismoa, mugimendu feminista eta mundu politiko-arena, hain zuzen •



Tantak

EHUko Hezkuntza Aldizkaria
25. zenbakia


Azken ale honetan sei artikulua biltzen dira: Eskola eraginkortasunaren hobekuntzarako Europako eredu baterantz, Autoebaluazio instituzionala: xedeak, eragileak eta metodologia, Ebaluazio psikopedagogikoa, Kontzientzia metalinguistikoa euskararikasle helduen artean, Plastika eta ikus-adierazpena: Lehen Hezkuntzarako euskaraz argitaratutako testu liburuen analisia eta Musika heziketa. •



Herioarekin borrokan HIESdun baten borroka

Joan Jose Uranga
Utriusque Vasconiae

Egileak zuzenean ezagututako gazte talde batek HIESaren aurrean nola jokatzen duen kontatzen du. Herioaren aurka eta giza duintasunaren alde daramaten borroka etsia deskribatzen du Jaire gaztea protagonista delarik. Guztia egunkari moduan kontatzen du, bizi eta gordin, idazkera dotorez •



Euskal mito-erritok eta euskara

Felix Zubiaga
Ibaizabal

Ikerketa eta abentura liburu honek euskaldunon sorburuetara gara matza. Ezagunak dira euskal ohiturak, jaialdi bereziak eta erritok. Baina zer dakigu horien zergatiari buruz? Zergatik ospatzen dira? Zergatik dira "euskaldunen ohiturak"? Galdera horiei modu atseginean erantzuten die liburu honek •



Nik eserita egiten dut

ETA ZER? bilduma
Elkarlanean
850 pezeta

Handiak eta txikiak, berritsuak eta lotsatiak, gizenak eta argalak... pertsona guztiok ez gara berdinak. Eta zer? Liburu hau ere desberdina da, horregatik da polita. Baietz gustatu! 8 urtetik aurrera •

Musika Irakasle Euskaldunon II. Topaketa emankorra izan da



Musika Irakasle Euskaldunon II. Topaketak bigarren aldiz elkartu ditu aurten arlo horretan diharduten irakasleak. Giro onean burutu zen egun bateko jarduna Donostiako Herri Ametsa ikastolan. Antolatzaileek balorazio positiboa egin dute eta hitzaldietako emaitzak zein parte-hartzaileak ere gustura gelditu dira.

Topaketan lau hitzaldi edo propoposamen didaktikotan esku hartu zuten parte-hartzaileak. Guztiz praktikoak izan ziren, antolatzaileen esanetan hori baita irakasleek eskatzen dutena.

Antton Jauregi Urnietako Egape ikastolako Lehen Hezkuntzako Musika irakasleak *Pentagrama-enea* ipuin-antzerki didaktikoa aurkeztu zuen. Horren bitartez ikasleek solfeoarekin duten lehen kontaktua atsegina izatea nahi da. Ipuin batez bidez erakusten zaie solfeo eta Jauregik eduki duen esperientziaren arabera, hurrek askoz ere errazago eta gogotsuago ikasten dute. Hilabete edo hilabete eta erdian erabiltzekoa dela adierazi zuen. Hartzaileek interes handia erakutsi zuten eta asko jarri dira berarekin harremanetan.

Ana Etxeberria Burlatako Askatasuna institutuko Musika irakasleak musikan alfabetatu gabeko ikasleekin zer egin daitekeen azaldu zuen. Bere proposamena alderdi emozionala lantzea da: sentimenduak, emozioak eta adierazpenak. Eta horretarako, berak egiten dituen hainbat ariketa erakutsi zituen.

Itziar Zamora Irungo Txingudi ikastolako Musika irakasleak ere saio guztiz praktikoa eman zuen. Berak zioenez, musika ez da erritmoa soilik, ez da abestia soilik, ez da entzunaldia soilik, hori guztia baizik. Ipuina oinarritzat harturik, abesti batekin hasi eta atal horiek denak landu zituzten: erritmoak, mugimenduak, ahotsa, entzunaldiak... Musikaren idazketa irudien bidez egiten du bere ikasleekin eta horrek irakurketa-idazketa prozesuan lagundu egiten diela frogatu du. Denbora gutxian gauza asko azaldu zituen, eta hartzaileen artean somatu zuen irrika ikusirik, aurrera begira elkarren artean biltzen eta materialak elkarri ezagutarazten jarraitzeko prest agertu da.

Azkenik, Mixel Etxekopar Zuberoako eskola publikoko Euskara irakaslea musika eta hizkuntzaren arteko loturaz mintzatu zen. Hizkuntzan bertan eta norberaren barruan musika nola aurki daitekeen azaldu zuen.



Erein, Bilintx eta Zabaltzenen zilarrezko ezteiak

Erein argitaletxeak azaroaren 20an ospatu zuen bere 25. urteurrena Donostiako Kursalean. Hamar egun beranduago, azaroaren 30ean, **Bilintx** eta **Zabaltzenek** gauza bera egin zuten Donostiako Miramon Teknologia Elkartegian. Ekitaldi bietan euskal kulturaintza munduko hainbat eta hainbat lagun bildu ziren.

Euskal kulturaintzan erreferente bilakatu diren argitaletxe, liburudenda eta banatzaile horien lana 1976an hasi zen eta ekitaldietan 25 urte hauetan egindako lana aipatu zuten. Oztopoz betetako bi-


dea izan arren, gustura ageri dira sortzaileak, langileak, kolaboratzaileak, arduradunak eta gainontzekoak. Aurrera begira ere erronka anitz dituztela eman zuten aditzera, euskal kulturaintzan oraindik zer eginik bai baitago.



Ikastolak plan pedagogikoa eta barne egitura aztertzen ari dira

Ikastolen IV. Batzarraren lehen saioa azaroaren 10ean egin zen Donostian, eta bigarrena urtarrilaren 26an egingo da. Lehen saioan bildutako 100 ikastoletako 460 ordezkari hainbat gai izan zituzten aztergai eta eztabaidagai.

Hasteko, 1996ko III. Batzarrean onartu zuten plan pedagogikoa aztertu zuten: orduan hartutako erabakiak eta helburuak bete diren ala ez. Horretarako, zazpi ataletan banatutako 20 ponentzia izan zituzten aztergai eta eztabaidagai. Aipatu atalak hauek izan ziren: ikasmaterialgintza, euskal curriculum propioa, profesionalen prestakuntza, proiektu bereziak (Euskaraz Bizi, bertsolaritza eta ikaspilota), eleanitz hizkuntza proiektua, ikastolen barne antolaketak eta komunikazio eta informazio teknologia berriak.



Ikastolaz ikastola aztertu da plana eta horren inguruan sortu diren iritziaik eta iradokizunak ere bildu ziren.

Hurrengo urratsa urtarrilaren 26ko saioan emango da. Bi gai nagusi izango dira mahai gainean. Batetik, hurrengo bost urtetarako Plan Integrala finkatzea. Eta bestetik, Ikastolen Elkartearen eraberritze juridikoa. Horri dagokionez, Interes Ekonomikodun Europako Elkartea izateko proposamena dago. Antolaketa horrekin herrialde bakoitzeko federa-

zioak bere izaera gordeko luke, eta konfederazioaren izaera juridikoa baino ez litzateke aldatuko.



Gaur egungo gizarte anitzari aurre egingo dion heziketa etikoa izan da hizpide EIFE-FERERen jardunaldietan



Garzeizen burutu diren EIFE-FERERen aurtengo jardunaldietan gaia **Heziketa eta etika aniztasunezko gizartean** izan da. Funtsean, gaur egungo gizarteko aniztasunari eta etengabeko aldaketei bideratutako heziketa etikoa zein izan litekeen aztertu eta eztabaidatu da. 400 lagun inguru bildu ziren eta hizlariak zazpi izan ziren. Lehenengo

hirurek, Xabier Etxeberria, Jose Luis Velazquez eta Carlos Díazek, etikaren ikuspuntutik gizartearen ikuspegi orokor bat eman zuten. Xabier Etxeberriaren hitzaldiaren izenburua *Baliabide berriak egoera berrietarako* izan zen. Errealitateko hainbat egoeren deskribapena egin zuen eta bakoitzeko jomugak lortze bidean etikak duen balioa. Jose Luis Velazquezek errealitatearen ikuspegi laikoa izan zuen hizpide, eta Carlos Díazek ikuspegi fededuna.

Hurrengo eguneko hitzaldien gai orokorra *Pertsona, etikaren subjektu*

izan zen. Emilio Martinez etika motetaz jardun zen, eta Jose Maria Setienek hiritar kristauaren etikak nolako izan behar duenazaldu zuen. Azken hitzaldietan *Errealitatearen argitasuna kristau-ikuspegitik* aztertu zen. Eduardo Lopezek emandako hitzaldia *Sexu antropologiak aniztasunezko gizartean: kristau proposamena* izan zen, eta Imanol Zuberorena *Boterea-politika-biolentzia*.



Errefuxiatuen egoera ezagutzeko CD-ROM berria kaleratu du CEAR-ek



Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordeak (CEAR) CD-ROM bat egin du 10-15 urte bitarteko gazteek errefuxiatuen egoera ezagut dezaten. *50 milioi errefuxiatuk ez dute non sartu* kanpai-

naren barruan egindako ekimenetako bat da berau. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan abian jarritako kapaina honen helburua errefuxiatuek bizi duten egoera eta horren sorburua ezagutzera ematea da.

90eko hamarkadan guda eta gatazka etniko, politiko, erlijioso eta kulturalengatik 50 milioi pertsonak baino gehiagok egin behar izan zuten ihes beren etxeetatik. Egun munduan 30 milioi errefuxiatu eta 20 milioi desplazatu daude.

Egoera hori ezagutzera emateko xedez egin duten CD-ROMak joko interaktibo bate bidez erakusten du errefu-

xiatuen egoera. Jatorri, maila ekonomiko eta ezaugarri pertsonal desberdinak dituzten bost pertsona agertzen dira. Erabiltzaileek pertsonaia bat edo beste aukera dezakete, eta harekin ihesaldia- ren ibilbide osoa egin ahal izango dute. Beren jaioterritik ihes egin eta beste lurralde batera iritsi bitarteko denbora hori nola pasatzen duten ikusteko eta bizitzeko aukera ematen die joko interaktiboak, nolabait esateko.

CD-ROMaz gain, beste hainbat egitasmo ere burutu ditu CEAREk kanpainaren barruan. Esate baterako, liburuxka didaktiko batzuk prestatu ditu 9-11 urte bitarteko ikasleentzat, eta emakume errefuxiatuen egoerari buruzko hitzaldiak antolatu ere bai.

historiak zertzeladak

Maria Dolores Goia Mendiola andereñoa

Gerra zibilaren ondoren Donostian euskarazko hainbat ikastola sortu ziren. Horietako bat Gros auzoan zegoen, Maria Dolores Goia Mendiolak sortu zuena. 1951an ireki zuen eta 1975era arte makina bat haur pasa ziren ikastola hartatik.

Biografia

Maria Dolores Goia Mendiola 1913 jaio zen Donostian. Gerra Zibilaren aurretik irakasle aritzen zen eta baita ondoren ere. Gerra aurretik egin zituen magisteritza ikasketak, 1932an bukatu zituelarik. Irakasle bezala hasi zen berehala, eta Donostiako Etxaide kaleko ikastolan bi urtez jardun zen. 1936an oposaketak egin zituen. Garai hartako oposaketak gainditzeko lehendabizi azterketa bat gainditu behar zen eta ondoren urtebeteko praktikak egin behar ziren. M^a Doloresek 1936an gainditu zuen azterketa eta praktikak egiten Donostian hasi behar zuen. Baina gerra zela-eta, ikasturtea ez zen hasi eskoletan.

Donostiatik Bermeora eta handik Bilbora alde egin beharra izan zuen Maria Doloresek. Hala, Bilboko delegaritzan egin zuen praktikak egiteko eskaera eta Plentziako eskola batera bidali zuten. Han jardun zen eskolak itxiarazi zituzten arte, hots, Gernikako bonbardaketaren biharamunera arte.

Gerra egoera hartan Eusko Jaurlari-



Ezkerraldean zutik M^a Dolores Goia Donostiako Etxaide kaleko ikastolan 1935ean.

tzak haurrak gerratik aldentzeko irteerak antolatu zituen; hala, milaka eta milaka haur irten ziren itsasontzietan Euskal Herritik kanpora. *La Habana* itsasontzia izan zen horietako bat eta Ingalaterrara joan zen berau. 4.500 haur eta 500 irakasle iritsi ziren Southampton portura. Handik batzuk White irlara joan ziren eta M^a Dolores horien artean zegoen. Han zazpi hilabetez egin zen, eta jarraian Parisera

joan zen. Handik Euskal Herrira itzuli zen gerra amaitu ostean, 1941ean.

Hemen 10 urteko kartzela zigorra ezarri zioten haurrekin alde egiteagatik, baina ez zuen bete. Berriz ere irakaskuntzan murgildu zen eta hala, 1943an eskola bat ireki zuen Ergobian. 1946an utzi egin behar izan zuen bigarren haurra jaio ondoren.

1951an etxean ikastola irekitzea era-

baki zuen, eta 1970. urtera arte bertan lanean jardun zen.

Gerra ondorengo urte haietan Maria Dolores Goiak, beste hainbatek bezala, lan eskerga egin zuten euskal irakaskuntzan. Ikastolen mugimenduaren hastapenetan koka dezakegu, ez bairik gabe.

Groseko ikastola

Maria Dolores Goiak 1951an ireki zuen ikastola bere etxean, Donostiako Gros auzoko Karkizano kaleko 8an. Elizabete Maiztegi maistrak animatu eta bultzatu zuen. Eskola gehiago ere baziren auzoan, baina ez euskaraz irakasten zutenak. Halaber, Donostian euskaraz irakasten zuten ikastola gehiago baziren, ezagunena Elbira Zipitriarena delarik.

Etxeko logela batean hasi zen 3 eta 10 urteko bitarteko 10 hurrekin, eta berehala igo zitzaion kopurua 20ra. Izan ere, Gros auzoan berak uste baino jende euskaldun gehiago zegoen eta beren hurrek euskaraz ikas zezaten nahi zuten. Ez da ahaztu behar helburu horrekin sortu zirela ikastola hauek: hurrek euskaraz ikas zezaten eta euskararik ez zekitenek, berriz, euskara ikas zezaten.

Hasieran haurrak egunean bi orduz egoten ziren, batzuk goizez eta beste batzuk arratsaldez. Baina zenbait gurasok goiz eta arratsaldez hartzeko eskatu zioten. Hala, 10:00etatik 12:00etara eta 15:00etatik 17:00etara joaten ziren. Denbora gehiago egoten zirenez, lan gehiago egiteko aukera ematen zien.

Maria Doloresen ikastolak bazuen berezitasun bat: mahaiak eta aulkiak zituen. Gainontzeko ikastola eta eskoletan haurrak lurrean esertzen ziren, baina Maria Doloresi ez zitzaion batere gustatzen eta gainera, deserosoa iruditzen zitzaion. Horregatik, hasiera-hasieratik jarri zituen mahaiak; hasieran astodunak eta geroago horman zintzilikatzen zirenak.

1964an bere alaba Miren Egaña Goiaia ere hasi zen eta bien artean 80 haur zituzten: 3-6 urteko 40, eta 7-9 urteko beste 40. Ordu-rako lekuz aldatuta zeuden, hasierako etxeo gelan ez baitziren 80 haur sartzen. Etxe azpiko bulegoko bi gelataratu aldatu ziren.

Han jarraitu zuen 1970. urtera arte, utzi zuen arte. Ikastolak, ordea, beste bost urtetan jarraitu zuen Miren Egaña



Ergobiako eskolan bere ikasleekin 1945. urtean.

alabarekin.

Gela barruko lana

Euskaraz ikasteko materialik ez zegoen garai hartan, eta handik eta hemendik eskuratutakoarekin moldatu beharra izaten zuten. Lehendabizi "Txomin ikasle" izeneko kartila zahar batekin hasi zen Maria Dolores, eta banan-banan irakasten zizkien letrak ikasleei. Gero bizkaieraz idatzitako itun zahar bat lortu zuen eta hura erabiltzen hasi zuen. Nahiz eta bizkaieraz izan eta ulertzeko zailtasunak e-duki, berdin zitzaion irakurketa mekanikoa egiteko baldin bazen.

Handik gutxira Maritxu Berriolak "Xabiartxo" liburua argitaratu zuen. 68 pezeta balio zuen 1951-52 urteetan eta erabat klandestino zen. Maria Doloresek 10-20 erosi zituen eta poliki-poliki salduz joan zen. Asko estimatutako eta erabilitako liburua izan zen.

Beste irakurketa liburu bat Orixeren "Leoi-kumea" izan zen. Hura ere erabiltzen zuten, nahiz eta haurrentzat zaila izan.

Durangoko I. Liburu eta Disko Azokara joan zirenean Maria Doloresek eta Miren alabak Julene Azpeitiaren *Umien Adizkidea* liburuarekin egin zuten topo. Irakurtzen eta idazten ikasteko haurrentzako metodoa zen. Bizkaieraz idatzita zegoen, baina oso egokia zen. Liburu hurrekin hurrek errazago ikasten zuten irakurtzen arrazoi simple batengatik: alde-rantzizko silabak ziren ikasteko zailenak eta liburu honetan hasieratik ager-

tzen ziren. Horrela, askoz ere azkarrago ikasten zuten, eta nahiz eta bizkaieraz egon irakurketa mekanikoa egiteko oso erabilgarria zen.

Liburu hauekin euskaraz irakurtzen ikasten zuten, eta gainerako ikasgai guztiak ere euskaraz irakasten zitzaizkien. 9-10 urterekin, aldiz, *Ingreso* egin behar izaten zuten gero ikasten jarraitu ahal izateko. Eta hori, noski, gaztelaniaz egin behar. Horregatik, 9 urterekin gaztelania ikasten zuten; irakurtzen eta idazten. Baina gainerako ikasgaiak, lehenagotik bezala, euskaraz ikasten jarraitzen zuten.

Maria Doloresek garrantzi handia ematen zien berak karrera garaian ikasitako eta gero errepublika garaian indarrean jarritako *Centros de Interés* delakoei. Liburu horietan gai bat lantzen zen heinean, horrekin lotutako mila gauza jorratzen ziren. Bestela, ikasgaiak banaka eta elkarren arteko loturarik gabe ikasten ziren, eta *Centros de Interés* hauekin lotu-



1954ko Gabonetan ikastolako haurrak.



Karkizano ikastolako haurrak 1967ko Gabonetako postalean.



rak egiten ziren.

Euskara eta frantsesa

Eskolako irakaskuntza guztia euskaraz egiten zen, baina baziren euskaraz ez zekiten haurrak ere. Urtero 10 haur berri hasten ziren, eta horietatik laupabost erdaldunak izaten ziren. Batzuk ez zekiten tutik ere euskaraz, eta beste batzuk oso eskas. Hala ere, haur horiek berehala integratzen ziren. Nola? Murgilketaren birtartez. Euskaldunak gehiengo ziren multzo handi batean sartzen ziren haur erdaldunak, eta pixkanaka-pixkanaka ikasiz joaten ziren. Noski, hasierako egunak gogorak izaten ziren. Kontuan hartu behar da haur haiek 3 urterekin hasten zirela, ez zutela ezer ulertzen, eta gainera, ama utzi behar izaten zutela. Maria Dolores eta Mirenek hasierako 15 egunetan hitz batzuk gaztelaniaz egiten zizkien, baina handik aurrera dena euskaraz. Gabonetarako gutxiengo esaldi eta hitz batzuk ikasten omen zituzten; Aste Santuetarako nola edo hala hitz egiten omen zuten, baina oraindik ere gaizki; eta ekainerako dezente. Udako oporraldiaren ondoren irailean dena ahaztuta etortzen ziren, baina ez zuten hutsetik hasi behar izaten, lehendik ikasitakoa bergogortzetik baizik; eta hori, oso gutxi kostatzen omen zitzairen. Bigarren urtean euskaraz normal hitz egiteko gai izaten ziren.

Murgiltze eredu honekin hurrek euskara menperatzea lortzen zuten. Agian pedagogikoki ezzen eredurik egokiena izango adin ezberdinetako haurrak nahastuta zeudelako, baina momentu hartan hizkuntzari ematen zioten lehen-tasuna; hizkuntza menperatu gabe ezin baitzen beste ezer egin.

1964an Miren Egaña frantsesa irakasten ere hasi zen. Nahi zuten hurrei aukera hori luzatu zien, eta 7-9 urteko dozena

bat hurreko taldea osatu zen. Garrantzitsuztat jotzen zuten beste hizkuntza batekin hastea. Frantsesa edo ingelesarekin hasteko aukera zuten, Mirenek biak baizekizkien, baina frantsesa irakastea erabaki zuten, euskal herriar askoren bigarren hizkuntza zelako eta frantsesa zelako garai hartan Hegoaldean ikasten zen bigarren hizkuntza.

Egitasmo bereziak

Karkizanoko ikastola honetara joaten ziren hurrek abesti ugari ikasten zituzten. Ezen Maria Doloresek garrantzi handia ematen zion kantuari. Eskolara iritsi eta lehenengo gauza kantatzea izaten zen. Ez da ahaztu behar garai hartan gurasoak kristatuak zirela eta elizara joaten zirela, hots, garrantzi handia zuela kristautasunak euren bizimoduan. Horregatik, beste kanten artean, Gabonetakoak, jaunartzeakoak eta Jainkoari zuzendutako otoitz-kantuak erakusten zitzaizkien.

Gabonetan ikuskizun berezia egiten zuten haur guztiek. Baserriarrez jantzi eta etxean atez ate ibiltzen ziren kantari:

“Ai hau gauaren zoragarria,
Jesus jaio da Belenen.

Etxe honetan sartu ote da
bila gabiltza beraren”

Abesti hori kantatzen zuten etxe barruko gelako ate guztietan eta azkeneko atean agertzen ziren San Jose eta Ama Birjinaz jantzita bi haur. Hauek beste abesti bat kantatzen zuten erantzun modura. Ondoren, denek ikasitako kantu guztiak abesten zituzten.

Egun hortan argazkiak ateratzeko ohitura ere zabaldu zen. Hurrei baserriarrez jantzita argazkiak ateratzen zizkien, eta argazki horiekin postalak egiten zituzten. *Zorionak* jarri eta aiton-amonak eta familiakoak zoriontzeko erabiltzen zituzten.

Klandestinitatea andereñoarentzat eta gurasoentzat

Garai hartan ikastolak etxeetan ziren, eta ikastolak ireki zituzten andereñoak (maestrak) ugari ziren. Alde horretatik begiratuta, ikastolak ere ez ziren arraroak.

Aitzitik, hauek erabat klandestinoak

ziren, bai andereñoarentzat (maistrarentzat) eta baita gurasoentzat ere. Beren buruak eta seme-alabek arriskuan jartzen zituzten. Guraso gehienak abertzaleak ziren eta oso kontzientziatuta zeuden garrantzitsua zela seme-alabek euskara eta euskaraz ikas zezaten.

Hori ez zen eskolara mugatzen, hortik atera ondoren ere euskara erabiltzeko ahaleginak egiten zituzten gurasoek. Horrela, Groseko Katalunia plazara joaten ziren denak elkarrekin, amak eta seme-alabak, eta euskaraz jolasten ziren. Azken finean, talde bezala funtzionatzen zuten, familia txiki bat osatzen zuten, eta eskolako lanari jarraipena ematen zioten.

Karkizano kaleko ikastolaren azken urteak

Maria Doloresek 1970ean utzi zion bere ikastolan lan egiteari, gaixotu egin baitzen, baina Miren alabak jarraitu zuen. Hainbat berrikuntza abian jarriak zituen, eta esanguratsuen arteak ziren. Larunbat goizetan hurrekin irteerak egiten hasi zen. Batzuetan jolastera ateratzen ziren, eta beste batzuetan hainbat leku bisitatzerara eta ezagutzera. Esate baterako, okindegira joaten ziren ogia nola egiten zuten ikustera, errotatiba batera eta inguruko beste zenbait lantegitara.

Beste bost urtetan jarraitu zuen Mirenek, 1975an utzi baitzuen. Ikasleak 10 urtera arte egoten ziren Mirenen ikastolan eta handik beste ikastola handietara joan behar izaten zuten. Beste ikastola handi horietara sartzeko oztopoak jartzen hasi ziren, ordea, eta horrek bultzatu zuen Miren eskola ixteko erabakia hartzerara. Inguruko ikastolek hartu zuten Karkizano kaleko ikastolaren eta besteen lekukoa.

Mirenek ere irakaskuntzan jarraitu du. Karkizanoko ikastolatik Hernaniko Urumea ikastolara joan zen eta 3 urtez egon zen bertan. Ondoren Donostiako Usandizaga institutuan aritu zen bi urtez. Euskal Herrian egin ziren lehen Institutuko Katedra eta Agregaduritzetako lehaketa edo oposaketan esku hartu zuen eta Katedra lortu ere bai. Katedratikoen artean emakume bakarra izan zen. Egun Donostiako Zubiri-Manteo BHIko Euskara-

Oharra: argazkiak Miren Egañak utzitakoak dira.

Liburuz beterik datoz gabonak...

Hil ala bizi?

*Bizi, noski!
Eta abentura
askorekin!*



GALTZERDI SUIZIDA

Mariasun Landa
Antton Olariaga

Denok ez gara berdinak...



ETA ZER?



ETA ZER?

ETA ZER?



ELKARLANEAN

*igarkizun berri-berriak
eta marrazki ikusgarriak
ipuin zoragarri bat*

Mintzo naiz isilik...

Juan Kriz Igerabide
Lorena Martínez



dona dona saila

*Sehaska dute belarrezko
eta zerna bebarrezko.
Kantatzen dute alai
bamaka eta bamañaka ere bai.*

SPRUX

BETKO TARTALO
JANTZI BERRIEKIN



MARI SAILA